

DATORRENA

Zergatik ez ordainketa elektronikoko sistema publikoa? ISIDRO ESNAOLA > 3

PELLO JAUREGI: «Euskararen erabilera gora eramateko, ulermen unibertsala ziurtatu behar da» > 22

2020ko irailaren 12a | XIV. urtea • 688. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



URIZ PI AHIZPAK, FEMINISTAK ETA ANTIFAXISTAK, DUELA MENDEBETE

NAFARROAKO BADOSTAINEN SORTUAK, PEPITA ETA ELISA URIZ PI AHIZPEK MUNDU MAILAKO PROTAGONISMO SOZIAL ETA POLITIKOA IZAN ZUTEN. BEREN IDEIAK JANZTEKO ETA HAIEN ALDE BORROKATZEKO GRINAK GIDATU ZITUEN BETI BI AHIZPEN URRATSAK. > 12 OLGA GARCIA DOMINGUEZ FUNTSA



7



18

Aldaketa garaietan Ameriketara egindako bidaien kronika josi du Mikel Insaustik 04

Tigray Etiopiako eskualdeak joateko desafioarekin erantzun dio baztertzeari 07

Pepita eta Elisa Uriz Pi; feministak, antifaxistak eta hezkuntzan aitzindariak 12

Covid-19ari buruzko desinformazioak eragin masiboa du iturria fidagarria denean 18

Elkarrizketa: Pello Jauregi Etxaniz, hizkuntzalaria 22

«Begietan daukat» 26

Sarean 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:** Zergatik ez ordainketa elektronikoko sistema publikoa?

10 **Ander Gortazar Balerdi:** Goldfinger

11 **Mikel Zubimendi Berastegi:** Txertorik ez duen larrialdia

17 **Amaia Ballesteros**


20 **Gorka Zozaia:** Ikasturte hasierako matematikak

21 **Joana Garmendia:** Euskara inposatzeaz

27 **Xabier Izaga Gonzalez:** Konponbide azkarra

27 **Xabier Mikel Errekondo:** Medikuak eta medikuak

30 **Maitena Usabiaga Sarasua:** Zaurgarritasunean



22

{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Zergatik ez ordainketa elektronikoko sistema publikoa?

Bankiak eta La Caixak iragarri zuten elkarren arteko fusioa aztertzen ari direla. Komentarista guztiek oso balorazio positiboa egin zuten. Oso handia izango dela izan da iritzi hori justifikatzeko erabili duten funtsezko arrazoia. Itotzekotan, ur handitan. Ziurrenik, fusio horren beste ekarpen bat langileak kanporatzea izango da, baina hori hobe ez aipatzea. Eta azkena, bat-egitearen ondorioz sortutako erakundearen egoitza, orain bezala, Valentzian mantenduko da. Katalanak ez dira jada fidagarriak.

Banketxeen fusioek ez dute etenik. Handitasunak ez du zerbitzuaren kalitatea hobetu. Kutxabankek bulegoen atarian ohikoak dira ilarak. Hori bai, komisioak kobratzeko artista bihurtu dira. Ezohikoa den edozein eragiketa egiteko, komisioa eskatzen du edozein bankuk. Kobratzen dute, esate baterako, transferentzia bat beste banketxe bateko kontu batera egiteagatik. Eta ordainketa diruz egiten bada leihatilan, kontzeptua idazteagatik kobratzen dute. Txartela edukitzeagatik komisio bat; erabiltzen duzun bakoitzean komisioa saltzaileari kobratzen diote eta abar.

Eta gehien harritu ninduen izan zen online egoitza elektronikoen bidez udal bateko ordainagiri bat ordaintzerakoan, Kutxabankek –ordainketak kudeatzen zituen banketxea– txartelekin egin zitekeela bakarrik. Egoera udaletxeko arduradunekin komentatu ondoren, berehala aldatu zuten. Pentsatzen dut beste banketxe bateko txartelak onartzeagatik udalari kobratzen zion tarifa ere aldatuko zuela Kutxabankek. Edonola ere, harrigarria da zerbitzu publiko bat eskaintzea eta kudeatzaileak aukerak mugatzea, ordainketaren monopolioa ezarri. Ematen du Erdi Aroan bezala bukatuko dugula: edozein zubi gurutzatzeko, aurretik bidesaria ordaindu beharko dugu.

Bankuen gehiegikeriak dira araua. Espainiako Bankuak, ikuskatzaile teorikoak, ez du ezer egiten. Ziur aski horregatik dago 2014tik oinarritzko ordainketa-kontuei buruzko Europako zuzentaraua. Oinarritzko ordainketa-kontu bat da edonork nomina kobratzeko bankuan duen kontu hori. Zuzentaruaren arabera, barnean hartzen du erosketetarako txartel bat, kutxazainearen dirua ateratzeko aukera, transferentziak eta argindarraren, uraren, komunitatearen ordainagiriak ordaintzeko aukera, urtean 120 eragiketara arte. 2017an Estatu espainoleko ordenamendura gehitu zen arau hori, baina beste bi urte behar izan ditu Gobernu espainolak oinarritzko kontu horregatik banketxeek urtean kobratu dezaketen gehieneko komisioa finkatzeko: 36 euro. Bada dirua, bereziki estu eta

Harrigarriena da ordaindu behar izatea oinarritzko eragiketa horien truke. Zergatik ez ditu Estatuak (Ogasunak) ordainketa elektronikoko horiek antolatzen? Ez al ditu Estatuak billete eta txanponak jaulkitzen?

larri dabilzan pentsiodun, guraso bakarreko familia, langabetu eta abarrentzat.

Harrigarriena da ordaindu behar izatea oinarritzko eragiketa horien truke. Zergatik ez ditu Estatuak (Ogasunak) ordainketa elektronikoko horiek antolatzen? Ez al ditu Estatuak billete eta txanponak jaulkitzen? Ezin al ditu Estatuak eskudirutan egin daitezkeen ordainketak mugatu? Iruzurrari aurre egiteko, ez al dago interesatua ahalik eta eragiketa gehien modu elektronikokoan egin daitezen? Orduan zergatik ordaindu behar dugu herritarrok? Eta zergatik enpresa pribatu bati? Estatuak dirua jaulkitzen du kobratu gabe, bere ardurabaita. Eta ordainketa elektronikoa ez? •

AMETSEN ERDIGUNEAN

Aldaketa garaietan Ameriketara egindako bidaien kronika

 **JENDARTEA** / Pablo Ruiz de Aretxabaleta

Egunkari honetako orrialdeetan sarri irakurri ditugu hark filmei egindako kritikak. Orain bera da egia bilakatutako amets baten protagonista eta berak idatzi du amets horren gidoia “Ametsen erdigunera bidaia” liburuan.

Hainbat urtez Erdialdeko Amerikan eta Hego Amerikan egindako bidaien kronika da liburua. Bertan agertzen dira, besteak beste, gerrillariak, herri indigenetako buruak eta ekintzaile sozialak, bai eta natura ere, Insaustiren bizitzan garrantzi handia izan duen gaia.

Bi bidaia ezberdin kontatzen dira liburuaren orrialdeetan. Alde batetik, Chiapasen, El Salvadorren eta Guatemalan egindako bidaia. 90eko hamarkadaren hasieran hainbat gatazka eta bake prozesu gertatu ziren leku horietan, eta haien lekuko izan zen Mikel Insausti.

Batzuetan, berak egindako kontakizunaren bidez eta, beste batzuetan, leku horietako protagonistek kontatutako istorioen bidez garai historiko eta asalduraz beteriko haiek gogoratu ditu. Kontakizun laburren bitartez mosaiko orokor bat osatu du: sarraskiak, militarrek, gerrillariak, bombardaketak, komunitate indigenak...

Bigarren zatia, berriz, oso bestelako bidaia da: 2005ean Hego Amerikan egindako zortzi hilabeteko ibilbide baten kronika. Herrialde horietan ere aldaketa garrantzitsuen garaia zen.

Brasilen Luiz Inacio Lula da Silva presidentetzara iristek itxaropen garaia ireki zuen; Bolivian herri mugimenduek bazetozen aldaketak iragar-

tzen zituzten; Argentina krisialdi larrian murgilduta zegoen eta Txileko ezkutuan zituen oraindik gero eztanda egingo zuten gatazka sozialak.

Bigarren zati horretan, bidaiaren kontakizun kronologi-

koa egitea aukeratu du Insaustik. Borroka sozialetako ekintzaileak ere agertzen dira, baina protagonismo berezia hartzen du naturak. Patagoniako izotzak, Txileko eta Argentinako milaka urteko baso-

Boliviako Sucre hirian, indigenen protesta amaitu ostean (amawtak dira denak, agintariak).
Mikel INSAUSTI



ak, Bolivia eta Brasilgo oihan tropikalak... eta haietan bizi diren gizakiak eta animaliak.

Hego Amerikako «lokatzeta-ra» jaistea izan zen egilearen helburua, txikitatik izan zuen ametsa betetzeko.

Hamalau urte iragan dira Insausti bidaia horretatik Euskal Herrira itzuli zenetik. Orduan idazten hasi bazen ere, prozesua luzatu egin da. «Urte batean aurreratzen nuen dezente, baina gero, ez dakit zenbat urtez, seme-alabak eduki nitue-nean, aparkatu egin nuen», azaldu du.

Eszedentzia hartuta erabaki zuen «orain edo inoiz ez» eta dagoeneko doan deskarga daiteke bere blogetik (<http://via-jaconmigo.blogspot.com>). Halaber, liburu denda batzuetan ere banatu da.

BAIKORTASUNA

Igarotako denbora horrek aldatu egin du egilea, hitzaurrean aitortzen duen moduan. «Bidaiatik bueltatu nintzenen oso baikor bueltatu nintzen munduarekin. Hego Amerika ere oso momentu positiboan zegoen, ziklo aldaketa bat hasten. Ezkerreko gobernuak Brasilen, Bolivian handik urte batzuetara Evo Morales aukeratu zuten». Gaur egun ez da hain baikorra. «Gero etorri dira jada guztiok ezagutzen ditugun aldaketak eta krisiak, politikoak, ekonomikoak, sozialak...».

Adinak ere erakutsi dio bestelako irakurketak egiten. «Beti idealista izan naiz. Igual 30 urterekin pentsatzen duzu gauza asko ekinez alda daitezkeela eta gero konturatzen zara badaudela egitura batzuk oso zailak direla mugitzen. Hitzaurrean aipatzen dut. Bidaia bukatu nuenean gutun bat idatzi nien blogari jarrai-

tzen zioten lagunei eta han aipatzen nuen oso baikorra nintzela, eta, orain, hamalau urte geroago, egia esan, ez naiz hain baikorra».

«Bai garaiak bai eta eskualdeak ere oso ezberdinak dira», azaldu du Insaustik liburuko bi bidaiak aipatzean. «90eko hamarkadaren hasieran, pil-pilean zeuden Chiapas, Guatemala, El Salvador. Batzuk gerra zibila bukatzen, beste batzuk negozioazio prozesuetan...». Bestalde, «Ia hogeitaz gerra zibilen ondoren, ziklo horiek hasiak ziren ixten», adierazi du. Urte positiboak izan ziren arren «itxiera horiek ere nahiko bortitzak izaten dira. Negocio mahaian batzuetan badirudi zenbat eta hildako gehiago jarri botere gehiago dagoela. El Salvadorren 1992an oraindik bortizkeria asko zegoen baina jada negoziatzen ari zen bake akordio hori. Eta urte bat geroago aukera izan nuen bake akordioaren sinadura ekitaldira joateko»

Hamahiru urte geroago, bigarren bidaiari hasi baino lehen, Mikel Insaustik Brasil eta Paraguarin urte batzuk zermatzan lanean Munduko Natura Funtsean (WWF), Amazoniako proiektuak kudeatzen. «Batez ere nekazaritzak dakarren mehatxua, sojaren zabal-kundea Amazoniaren hegoaldean kontrolatu nahian».

LOKATZETARA JAISTEA

Urte horiek igaro ondoren erabaki zuen Brasilia eta Asuncion uztea eta, kontinentea hobeto ezagutzeko, «lokatzetara jaistea, urrunago joateko eta errealitate urrun horiek ezagutzeko».

«Bidaia horrek eman zidan denbora, askatasuna eta aukera norabide hori nahi nuen bi-



Amazoniako etxe tipiko bat, Santarem herritik gertu.
Mikel INSAUSTI

detik markatzeko», dio liburuaren egileak. «Joan nintzen apurka-apurka bidaiari sortzen eta, era berean, bidean nindola, batekin eta bestearekin hitz eginez erabakitzen hurrengo pausoa non egingo nuen».

Sao Paulon hasi zen eta Buenos Airesen, Patagonian, Suaren Lurraldean, Txilen eta Argentinan egon ostean, Bolivia zeharkatu eta Brasiliara, eta berriro buelta behera.

Herrialde bakoitzean aurkitutako jendeak eta gertatutakoak markatzen zion hurrengo urratsa. «Boliviako adibidez, iritsi eta egun batzuetara herrialdea blokeatu egin zen erabat. Protesta handiak zeuden, errepideak moztuta. Potosin harrapatu ninduen eta handik irteteko modu bakarra izan

zen indigenen protesta batekin bat egin eta Sucre iristea».

WWFrekin egindako lanean aukera izan zuen Amazonia mehatxatzen duten proiektu batzuk gertutik ezagutzeko.

Adibidez, «Santaremen portu ilegal bat eraiki zuen multinazional batek, Amazonian landatzen ari zen soja Europa esportatzeko».

«Bidaia ametsen erdigunera» liburuaren izenburuak Insaustik txikitatik izan duen nahia islatzen du. «Txikitatik horrelako bidaiari bat egitea izan zen nire ametsa. Hego Amerikan, motxilarekin... Hego Amerikarekiko erakarpen hori betidanik eduki nuen, Hego Amerikako sakoneko errealitate hori ezagutzeko grina oso gazteta-

tik izan nuen. Izenburua bada horren isla».

Baina Ameriketako herritarren ametsak ere agertzen dira liburuaren orrialdeetan. Amets hautsiak? «Historia zikloz beteta dago. Orain nahiko tristea da Hego Amerikan gertatzen ari dena, herrialde dezentetan, baina zikloak etorri eta joan egiten dira. Nahiz eta ez izan garai hartan bezain baikorra, egiazki uste dut orain dauden agintari batzuek ez dutela gehiegi iraungo adibidez, Bolsonarok Brasilen-, parentesi bat direla».

BUELTARIK GABEKO ALDAKETAK

Bere ustez, aldaketa batzuk ez dute bueltarik. Boliviakoa adibidez. «Evo Moralesen gobernuetan indigenek lortutako

duintasunak bueltarik ez due-
la uste dut. Azaroan, liburua
bukutzen ari nintzela, estatu
kolpea izan zen Bolivian. Han-
go berrien jarraipena nahiko
gertutik egin nuen eta indige-
nen liderrek horixe esaten zu-
ten. Indigenen duintasuna
Konstituzioan dago islatuta,
ez dauka atzera-bueltarik.
Egiazki nahiago dute bizitza
arriskuan jarri beraien eskubi-
deetan atzera egitea baino».

Dena den, ez du duela ha-
malau urteko baikortasuna.
«Ni jabetzen naiz munduan
badaudela interes oso botere-
tsuak eta gizartea nahi duten
bidetik eramateko dauzkaten
heldulekuak oso sendoak di-
rela. Hego Amerikan eta Euro-
pan ere horrela da. Hori alda-
tzen joango da? Nik uste dut
pixkanaka-pixkanaka huma-
nizatzen joango dela, baina ez
naiz inozoa. Badakit aldaketa
hori ez dela etortzen musu
truk, borroka asko egin behar-
ko dela», adierazi du Insaus-
tik.

«Bolivian, adibidez, lehen
baztertuta zeuden indigenak
esnatu dira eta berreskuratu
dute duintasuna eta horretan
berriz atzera egitea oso zaila
da. Zapal ditzakete baina bost
menderen ostean jakin dute
zer den duintasun hori berres-
kuratzea. Boliviako egoera
nahiko penagarria da mo-
mentu honetan, baina hori
koiunturala da. Sakoneko al-
daketa gertatu da eta horrek
segur aski beste aldaketa bat
eragingo du etorkizunean».

Brasili dagokionez, nabar-
mendu du aldaketa ekonomi-
koa handia izan arren, «kultu-
ralki sekulako arrazakeria
egoten» jarraitzen duela, eta
El Salvador eta Guatemalan
egon zenetik herrialde horiek
sartu zirela «bortizkeria gur-
pil batean: delinkuentzia,

bandak, marak... Eta hortik ez
dira atera. Indarkeria izuga-
rria dago Erdialdeko Amerika-
ko herrialde guztietan, El Sal-
vadorren, Nikaraguan,
Hondurasen. Ez da kasualita-
tea hango herritarrek emigra-
tu nahi izatea, AEBetara, Me-
xikora edo beste edozein
lekutara, bizitzera».

Era berean, «Fronte Sandi-
nista zertan geratu den ha-
markada hauetan. Hautsitako
amets asko geratu dira bide-
an», gaineratu du.

BARNE ALDAKETAK

Insaustiren bidaiak ez dira gel-
ditu. Duela sei urte berriro
itzuli zen Argentinara eta Bra-
silera eta aurten, martxoan,
Paraguaira bueltatzeko txarte-
la zeukan, baina «konfina-
menduak harrapatu ninduen
eta ezin izan nuen joan, baina
lagun asko ditut han eta kon-
taktuan jarraitzen dut. Orain
haurrak hazten ari dira eta be-
rreskuratuko dut kontinentea-
rekin harremana».

Bidaiak Mikel Insausti bera
ere aldatu duela aitortzen du,
«batez ere naturarekiko harre-
man horretan, ordura arte
profesionalagoa zen. Baina
han ezagutu nituen paraje as-
kotan natura beste dimentsio
batean sentitu nuen. Bai, nos-
ki, bidaiak aldatzen gaitu, pix-
ka bat irekita bazoaz eta baka-
rrik bidaiatzen denean batez

**Brasilian eta Asuncionen zeukan lana uztea
erabaki zuen kontinentea hobeto ezagutzeko,
«lokatzetara jaitsi, urrunago joateko eta
errealitate urrun horiek ezagutzeko»**

**Bidaiak Insausti ere aldatu zuen. Naturarekiko
harremana «ordura arte profesionalagoa zen,
baina ezagutu nituen paraje askotan natura
beste dimentsio batean sentitu nuen»**



Tiwanakun urte berri
andinoa ospatzen (2005eko
ekainaren 21a, solstizioa).
Mikel INSAUSTI

ere, ez da zaila konektatzea
jendearekin, lekuekin eta, bai,
pentsatzen dut aldatu nindue-
la». Honela dio liburuan: «Bi-
daia horrek zerbaitetan aldatu
banau, beste ahots batzuekiko,
beste oihartzun batzuekiko
sentikor bihurtzean izan da,
baita naturaren oihu isilean
ere, gizakiei arnasa eskatzen
ari baitzaigu».

BOTERETIK SEZESIORA

Tigray Etiopiako eskualdeak joateko desafioarekin erantzun dio baztertzeari

ATZERRIA / Dabid LAZKANOITURBURU

Etiopiako diplomazian aritu da 24 urtez Wondimu Asamnew, Ameriketako Estatu Batuetan (AEB) enbaxadore izateraino, eta mundu osoan bere herrialdea goratzen aritu izan da.

Egun, ordea, haren hizkera guztiz aldatu da. Bere garaian hainbeste goraipatu zuen Gobernu Federala «gidari mozkorra» baino ez da bere esanetan, herrialdea «anarkiara» eramaten ari dena.

Irudi hori gero eta hedatua dago bere jaioterrian, Tigray eskualdean, Etiopiako iparraldean. Afrikako bigarren herrialde populatuenean –Nigeriaren atzetik– biztanleen %6 baino ez diren arren, tigraytarrek Etiopiako politikan jaun eta jabe izan dira luzaroan, 2018an Abiy Ahmed lehen ministroa, 2019ko Bakearen Nobel saria jaso zuena, boterera iritsi zen arte.

Abiy Ahmed Etiopiaren historiako lehen lehen ministro oromoa da. Herrialdeko lehen talde etnikoa da Oromoena eta Oromiako hiriburua da Etiopiarrena, Addis Abeba.

Ordura arte eta Etiopiaren eta Eritrearen arteko gerra 1991n amaitu zenetik, Tigray Herriaren Askapenerako Fronteak (TPLF, ingelesez) agintzen zuen politikan, bera baitzen gobernu koalizioa, Etiopiako Herriaren Fronte Demokratiko Iraultzaileko (EPRDF), lehen indarra. Fronte horrek etnia desberdinen alderdiak biltzen ditu bere barnean.

KOMUNISTEN AURKA BORROKAN

Tigray Herriaren Askapenerako Frontea armekin borrokatu zen Derg-en Etiopiako erregimen komunistaren aurka. Jun-

Etiopia komunistaren aurkako borrokan lehen lerro armatuan egoteagatik boterean izan dira tigraytar politikariak Addis Abeban 1991tik. 2018an lehen ministro kargua hartu zuen Abiy Ahmedek baztertu egin ditu, prozesu demokratikoa egin gainerako etniekin eta Eritrearekin bakea sinatu ahal izateko. Haserre, Tigrayk independentziaren bidearekin mehatxatzen du.



ta militar hori erori zenean, egoera profitatu eta boterea bere eskutan izan du Gobernuaren aurkako manifestazioek Abiy boterera eraman zuten arte.

Boterearen muintetik alboratu zituzten Tigrayko politikarien haserre asteazkenean azaleratu zen. Iparraldeko eskualdeko agintariak Tigrayko Mekele hiriburuko parlamen-

turako 190 eserleku aukeratze-ko hauteskundeak presio guztien gainera mantentzea erabaki zutenean.

Addis Abebako agintariak legez kanpokotzat jo dute hauteskunde deialdia. Etiopian aurten ziren egitekoak hauteskunde orokorrak eta eskualde guztietakoak. Koronabirusaren pandemia zela eta, hasieran abuztura arte atzeratu zi-

tuzten eta orain, berriz, bertan behera utzi dituzte.

2018ko apirilean lehen ministro kargua hartu zuen Eritrearekin bakea sinatu –horregatik eman zioten Nobel saria– eta hainbat erreforma bultzatu dituen Abiy Ahmeden onarpenaren test bezala aurreikusten ziren hauteskunde horiek.

Etiopiako Senatuak diputatu agintaldia –Abiyrena tartean– hauteskundeak egin arte luzatzea erabaki zuen. Hauteskunde horiek covid-19a dagoneko mehatxua ez dela iragaritzen denetik 9-12 hilabetetara egin beharko dira.

TPLFk iraintzat jo du luzapena eta Abiy Ahmedek boterean nola edo hala jarraitu nahi duela salatu du.

«GERRA DEKLARAZIOA»

Ezertarako ez dute balio izan Hauteskunde Batzordearen eta Senatuaren mehatxuek –hauteskundeak Konstituzioaren aurkakoak direla eta ez dituztela emaitzak onartuko– eta Tigrayko Gobernuak berean jarraitu du. Are gehiago, hauteskundeak bertan behera utziko balituzte, «gerra deklarazioztat hartuko genuke», ohartarazi dute Mekeletik.

TPLFk ez ditu begi onez ikusi Abiyren hainbat erreforma, batez ere giza eskubideen aurkako gehiegikeriekin eta talde armatuekin adiskidetzearekin lotutakoak. Frontearen hainbat agintariri gehiegikerietan eta gerra kontuetan buru belarri sartuta zeudela leporatuta, Gobernu berriak karguetatik bota ditu eta horiek «sorgin ehiza» salatu dute.

Behin betiko haustura, azkenean, lehen ministroak 2019ko amaieran Oparotasunaren Alderdia sortu zuenean gertatu zen. Alderdi horrekin

EPRDF frontea amaitutzat jo zuen. Koalizioa osatzen zuten alderdi etniko guztiek onartu zuten aldaketa, ez, ordea, tigraytarren TPLFk. Horrela, bada, Gobernu Federalaren erabakietatik kanpo geratu dira.

ESTATUA BALITZ BEZALA

Horrek hautsak harrotu ditu eta Tigrayko agintariak estatu independente bat balira bezala aritzea ekarri du, ez soilik hauteskundeak deitzeagatik.

Tigrayk, Etiopiarekin alderatuta, koronabirusaren aurkako neurri zorrotzagoak ezarri ditu eta bertara joaten den bisitari orok berrogeialdia egin behar du.

Are gehiago, Saudi Arabiako atxilotze zentroetan dauden etiopiar etorkinak hartzeko proposamena egin dio Riadi, Addis Abebak ahaztu egin dituela salatuz.

Independentziarako grina hori Wondimu AEBetan enbaxadore izandakoaren bilakaeran ere atzematen da.

Urte hasieran, erretiroa utzi eta lanera itzuli da Wondimu, baina Tigrayko bulego diplomatikoa abian jartzeko. Kanpoko gobernu, merkataritza ganbera eta kultura erakundeekin harremanak egiteko.

Diplomazialariak onartzen duenez, egitasmo horrekin Tigrayk mundura zabaltzeko asmoa du, Abiyren prozesu demokratikotik aldentzeko. Wondimuren hitzetan, «prozesu horrek komunitateen arteko liskarrak bultzatzen dituelako, herrialdeko gainerako lekuetan anabasa nagusitzen den bitartean, gure erakunde ek (Tigrayn) funtzionatzen dute» aldarrikatzen du harrotasunez. «Lasai esan dezakezu gu lasaitasunezko uharte bat garela ur nahasien erdian», adierazi digu.

Eguneroko bizitzan bezala, hauteskunde egunean ere, asteazkenean, neurri zorrotzak ezarri zituzten Tigray eskualdeko agintariek.
Eduardo SOTERAS | AFP

Tigrayk hauteskundeak egin ditu aste honetan, Gobernu Federalaren debekuari muzin eginez. Eta Addis Abebatik aldentzen ari da, baita ere pandemiari emandako erantzunean

Abiy Ahmedek tigraytar politikariak alboratu zituen giza eskubideen aurkako gehiegikerietan aritzeagatik. Gainerako etniekin adiskidetzea ere ez zuten begi onez ikusten

TPLF frontea ez da sekula publikoki Tigrayren sezesioaren alde agertu, baina abertzale asko jarri ditu hauteskunde zerrendan. Izan ere, beti aldarrikatu du autodeterminazio eskubidearekiko errespetua.

Bide batez, bere aukerak baliatzeko, aurpegi berriak aurkeztu ditu, orain arte TPLFren inolako harremanik ez zuten heziketa oneko gazte teknokratak eta enpresa gizonak zerrendatan sartuz.

«Tigraytarren artean jarrera politikoa zeharo aldatu da.

TPLF berrantolatu eta berrasmatu egin da», adierazi du Kjetil Tronvollek, Etiopiako politikan adituak.

AURPEGI BERRIAK

Hori gutxi balitz, Tigrayren Independentziarako Alderdia (TIP) ere aurkeztu da –izenak dena adierazten du–, eskualdearentzat autonomia handiagoa eta bere lurraldetasuna eta kultura babestea eskatzen duten beste bi alderdiekin batera –Salsay Woyane Tigray eta Baytona–.

«Sezesioaren ideiak gero eta oihartzun handiagoa du hautesleen artean», dio TIP alderdiko buruzagiak, Girmay Berhe. «Etiopiar berari buruz galdetzen hasi dira eta gero eta adosago daude gure analisiarekin», gaineratu du.

Abraham Gebremedhin tigraytar abeslari famatua Etiopiarren batasunaren alde agertu da beti. Eta errua Gobernu Federalarena dela argi du. Tigraytarrek «hainbeste estutu ditu, sezesioa ezinbesteko bihurtzen ari baita», kexu da.

ERITREA

Oraindik ikusteko dago Tigrayko hauteskunderen desafioaren aurrean nola erantzuten duen Addis Abebako Gobernu Federalak.



Tigray iparraldean dago, Eritrearekiko mugan. Beraz, hango agintariekin ondo eramatea ezinbestekoa da Abiyk eta Eritreako presidente Isaias Afewerik sinatu zuten bake akordioa gauzatzeko. Akordioaren xehetasunak sekretuak dira, baina jakina da Etiopiako lehen ministroak konpromisoa hartu zuela 2000. urtean bi herrialdeen artean adostutako Badmeko hiriaren banaketa onartzeko. Badme egun Tigrayn dago; beraz, hango gobernuaren adostasuna beharko litzateke. Egia da, halere, duela bi urte akordio berria adostu zutela eta gaia ez dela oraindik mugitu.

URDURITASUNA NAGUSI

Nolanahi ere, Addis Abeba urduri dagoela begi bistakoa da. Mekelera hauteskundeen berri ematera zihoazen hamar bat kazetari atxilotu zituzten aste hasieran. Kanpoko Kazetarien Elkarteak salatu duenez, ez zieten utzi hegazkinera igozten eta material guztia kendu zieten, sakelako eta ordenagailuak tartean. Horrez gain, aurreko astean Emankizunen Etiopiako Aginteak, dei egin zien kanpoko hainbat kazetari, lehen ministroak aginduta, hauteskundeen berri ez emateko «Gobernu Federalak ez baititu aintzat hartzen».

Kazetarien elkarteak dei egin dio Gobernu Federalari «ez ditzan azken urteetan prentsa askatasunaren arloan egindako aurrerapausoak bertan behera utz eta atzera egin. Hauteskundeen berri emateak ez du esan nahi haiek babes- tea, dagokigun lana betetzea baizik», adierazi du.

Azkenean, litekeena da Tigrayko politikariek Abiy lehen ministroak sortu zituen esperantzak suntsitzea, edo gutxienez ahultzea.

Girmay Berhe Tigrayko
Independentziaren
Alderdiaren burua
Mekelen.
Eduardo SOTERAS | AFP



TIGRAYKOA EZ DA ETIOPIAKO LURRALDE ARAZO BAKARRA: HOR DAUDE OROMIA, SIDAMA. WOLAITA... ETA ERITREA?

Tigrayko auziak Etiopiak bizi duen zatiketa politiko eta etnikoa agerian uzten du. Horrek eta horren ondoriozko indarkeriak Abiy Ahmeden herrialdea demokratizatzeko asmoa ahultzen dute.

Liskarrak Oromian

Lehen ministroa oromiarra da, baina horrek ez du esan nahi Oromiako herrialdean babes osoa duenik. Bertako abertzaleen ustez, Abiyk ez du nahikoa egin pairatzen duten marjinazio politikoa eta ekonomikoa gainditzeko.

Giza eskubideen aldeko erakundeek Armadari errepresioaren bidea hautatzea egotzi diote, batez ere Oromiarren Askatasunerako Armada (OLA) erakunde armatuaren aurka. OLAK hilketak, atentatuak, bankuetan lapurretak eta bahiketak egiten ditu.

Joan den ekainaren bukaeran, Hachalu Hundessa oromiar abeslari ospetsua hil zuen Gobernuaren gerra zikinak. Ondorengo protestetan 178-239 pertsona artean (iturri desberdinen arabera) hil zituen poliziak.

Gatazkan 9.000 pertsona hil dira jadanik, tartean oposizioako buruzagietako bat, Jawar Mohammed, kazetariak ahaztu gabe.

Hegoaldea, zatituta

Hegoaldeko herri eta nazionalitateak izeneko eskualdea (SNNPR) osatzen duten talde etnikoek autonomia gehiago eskatzen dute. 1990etik bi estatutan eta bederatzi eskualdetan dago banatuta Etiopia. Hegoaldeko hamar taldek erregio bana eratzea eskatu dute Abiyren iritsiera aprobetxatuz eta Konstituzioak

baimentzen duela kontuan hartuta.

Horien artean Sidama etniakoak daude eta azaroan erreferendum bat egiteko asmoa dute.

Larriagoa da Wolaita eskualdeko egoera. Wolaitetek sidamek eskatzen duten gauza berbera nahi dute, baina Addis Abebaren erantzuna desberdina izan da.

Gutxienez 17 pertsona hil dira azken egunetan wolaiten agintari politiko bat atxilotu eta Poliziak ondorengo manifestazioen aurka egin duenean.

Giza Eskubideen aldeko Etiopiako Batzordeak, erakunde ofiziala izanda ere, deia egin die agintari politiko guztiei, bertakoei eta Addis Abebakoei, «lidergoa erakuts dezaten eta autonomia gehiago eskatzen duten aldarrikapen horiei irtenbide egokia eta lasaia eman diezaioten».



Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Goldfinger

Ados egongo gara: gaizkilearen karismak egi-ten du film bat handi. Heroiak, superheroiak, espiak, detektibeak... parez pare duen antagoinistaren mailara iristea da protagonista orenen helburua, hura garaitzea, tramari dagokionez lehenik baina baita presentziari eta karismari dagokienez ere. Lehenengoa ia beti lortzen dute, kanon klasikoak hala dio-eta; bigarrena... ez horrenbeste. Nahiko luke Batmanek Penguin edo Jokerren maila, edo James Bonden bere antagonista zerrenda luzearena, edo Sandra Bullock eta Keanu Reevesen Dennis Hopperrena –bai, “Speed”, ez nazazue epaitu–.

Sortzaileek gertuko ezagunengana jotzen dute maiz inspirazio bila eta hala egin zuen antza Ian Flemingek James Bonden antagonista zen Auric Goldfinger asmatu zuenean. Gustura geratuko zen Fleming pertsonaiarekin, liburuari gaizkilearen izena jar- tzea erabaki bazuen.

“Goldfinger” 1958an idatzi zuen Ian Fleming londrestar petoak, hiria izu- garri azkar aldatzen ari zen garai ba- tean. Bigarren Mundu Gerra amaitu- ta, berreraikuntza garaia zen eta hiria ulertzeko modua ez zen gerra aurreko berbera. Baldintzak (ekonomikoak, sozialak, teknikoak, politikoak) ezber- dinak ziren eta, halabeharrez, emaitza ere bai. Bogan zeuden mugimendu modernoak –zehazki, haren aldaera brutalista–, eta paisaia viktoriar idili- koan hormigoizko eraikin andana ha- si zen azaltzen pixkanaka, etenik gabe 80eko hamarkada iritsi arte. O, That- cher.

Eraikin hauek ez ziren denen gustu- koak eta ez ziren, garbi dago, Fle- mingen gustukoak. Urte batzuk lehe- nago, 1939an, arkitekto gazte batek hiru etxebizitzako bloke moderno bat eraiki zuen idazleak gaztaroa pasa zuen Hampstead auzoan, Londres ipa- rraldean. Materialeak eta eskalak bai, baina formek eta lengoaiak ez zuten zerikusirik inguruan ordura arte erai-

kitako arkitekturarekin. Gehiegitxo, Fleming kontserbadorearen iduriko.

Diotenez, Flemingi golfean ari zela aipatu zioten arkitekto hungariar judutar komunista gazte hura, ge- rra bukatu eta berehala Britania Handiko Alderdi Komunistaren egoitza eraiki zuen marxista, haur eskolak aurrefabrikatutako hormi- goiarekin egitera ausartu zena. Ian Fleming 1964an hil zen eta eskerrak, gaizkileak ez baitzuen bere *modus operandi*-a aldatu: 1967an Balfron Tower dorre brutalista eraiki zuen eta 1972an bere obra famatuena bilakatu den Trellick Tower, Londres brutalis- taren ikur nagusietakoa. Eraiki zituen etxebizitzak, dendak, eskolak, uniber- tsitateak, dorreak, bai eta aitortza pu- blikoa jaso ere, bere lanagatik.

1974an Hapsteadeko etxebizitza on- dare historiko izendatu zuten, 1996an Balfron, eta, bi urte geroago, 1998an, Trellick. Flemingi falta zitzaiona, onarpen sozialdun gaizkilea. Bera zen Goldfinger, Erno Goldfinger. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Txertorik ez duen larrialdia

Orain badugu etorri badatorrenaz ideia bat: eskala globala izango du eta den-dena aztoratuko du. Bizitza normala erratik aldatuko du. Mundua ezberdin sentituko da, ez da bere azalean ondo kabituko. Ziurtasun eta aurreikuspen oro hankaz gora joango dira. Lana izango dugu? Hilko gara? Galdera-mailuak noiznahikoak, nonahikoak izango dira. Ez du ikusi dugun ezeren antzik izango.

Bizi dugun pandemiaren krisia, bere txikian, iragarpen bat da, seinale bat. Etorriko diren krisi puska horien seinale txar bat. Txertorik izango ez duten krisiak izango dira. Oraingoa menuaren zizka-mizkak dira, sufrimendu handiago baten etorreraren zantzu. Heriotza, hondamena, galmen ekonomikoa, horiek guztiak etorriko zaizkigu neurriak hartzen ez badira, immune garela pentsatu eta jokatzeko segitzen badugu.

Mende hau krisi oso latzen mendea izaten ari da eta izango da. Egungoa baino askoz ere arriskutsuagoak badatoz. Jokoa dago dena, klimaren larrialdiari eutsiko diogun ala ez. Eutsiko diogun, sikiera puntu bateraino, modu koherente batean aurre egitea posible

izango dugun punturaino –gorriak eta bost pasatuta– edo zibilizazioaren ahalmenak gainezka egin eta gure espeziea salbaziorik gabe geratuko den.

Pandemiak eskalaren zentzu erabilgarri bat ematen digu, ezinbestean aldatu behararen eta aldaketa horren tamainaren berri. Denborak daukan garrantziarena, erantzunaren azkartasuna zein inportantea den. Abiadurak axola duela, inoiz baino gehiago. Bizirik irauteko aukera oraindik badaukagula erakutsi digu, baina aingira bezala, irristakorra dela, iheskorra oso.

Beldur orokortuaren erdian, askok uste dute “normal” itxura duen zerbaitetara bueltatuko garela, etorkizun ez oso urruti batean gainera. Baina klimak kolpea jotzen duenean, ez da egongo txertoaren esperantzarik, ezta erantzun azkar baten aukerarik

ere. Birus gehienekin ez bezala, gizakiak ez dira hondamendi klimatikoak gertatzean immune egiten.

Gure oraingo aztoramendu hau, ezinegon sozial hau, geroaren eta ekonomiaren inguruko zalantzadantza, normalitate berriaren erritmoa izango da. Normalean, krisi erlatiboki neurritsuetan normala dena etetean, presatu egiten gara errutinak, lana eta normalitatearen zentzu bat azkar errekupe ratzen eta berreraikitzen. Ulgarria da: inork ez du etenaldian, nahaste-borrastea bizi nahi.

Baina normalaren etena azkar pasatu nahi izatean, hondamendiak errepika ez daitezen beharko dugunaz kolektiboki ez bada pentsatzen, bidean asko galduko da. Ez bakarrik etorkizuneko krisiak arintzeko, hobe den “normal” berri bat imajinatzeko ere bai. Egungo krisian, normala den horren aurrekaririk gabeko eten

Pandemiaren krisia, bere txikian, iragarpen bat da, etorriko diren krisi puska horien seinale txar bat. Menuaren zizka-mizkak, datozen sufrimendu handiagoe n zantzu

bat bizitzen ari gara. Ez da amaiera argirik ikusten, ezta errekupe ratorako bide errazik ere. Aurreko beste hondamendi batzuetan ez bezala, krisia ez da geografia zehatz eta herrialde partikularretara mugatzen.

Eten hau alarma sirena bat da. Aldaketak egin behar direla, intentzio osoz, tentu handiz, gure osasuna babesteko –eta babesten gaituen planetarena–, hurrengo etenaren aurrean, gero eta hurbilagoa dena, aldaketak kolektiboki imajinatzeko ohar tarazpen argi bat.

Eta larrialdi klimatikoak ez du etenik. Oharpenei muzin egin diegu, egoera gaiztotzen duten praktika eta joka ere kin jarraitu dugu, ebidentzien aurrean, immuneak bagina bezala jokatzeko. Osasun larrialdi betean gaude, osasun publikoarentzat ez dagoelako larrialdi klimatiko bako mehatxu handiagorik. •

URIZ PI AHIZPA NAFARRAK

Bi emakume feminista eta antifaxista, jendartea eskolatik iraultzen, duela mendebete

Pepita eta Elisa Uriz Pi. Badostainen (Nafarroa) jatorria zuten bi ahizpek mundu mailako

protagonismo historikoa lortu zuten, beren bizitza osoan pauso sendoz egin zutelako faxismoaren kontra, feminismoaren alde, haurren eskubi-deentsan eta pedagogia berriaren eraikuntzan. Pepita, zaharrena, Badostainen jaio zen 1883. urtean. Elisa, Tafallan, 1893an. Haurrak zirela familia osoa Madrila joan zen bizitzera eta ez ziren bueltatu Nafarroara. Baina beti esaten zuten euskal herritarrek zirela eta hala jasota geratu da garai hartako beren lagunen memorian ere, Parisen bezala Berlinen. Alemanian zendu ziren biak.

Benito Uriz Erro, bi ahizpen aita, espainiar armadako kapitaina zen. Ama, Filomena Pi Cespedes, Kataluniako merkataria baten alaba. Kubako gerran ezagutu zuten elkar. Lau

 **JENDARTEA** / Amagoia Mujika Telleria

Pepita eta Elisa Uriz Pi Badostainen sortu ziren, 1883an eta 1893an. Garaiko hezkuntza estua laxatzeko eta iraultzeko sekulako lana egin zuten, Europako puntako erreferente berritzaileetatik ikasiz. Faxismoaren kontrako borrokan sendo jardun zuten eta munduko lehen erakunde feministetan pisu handia izan zuten. Urrats sendoko bi ahizpa nafar, mundu mailako garrantzi historikoa izanagatik, ezezagun samarrak orain arte.




Alboan, Pepita eta Elisa Uriz Pi Madril bizi zirenean, Kataluniara irakasle joan aurretik. Beheko partean, familiaren bi argazki. Lehena XIX. mende amaierakoa da. Bigarrena, Gironan hartua 1918. urtean. OLGA GARCIA DOMINGUEZEN FUNTSA ETA ELENA URIZ ECHALECUREN FUNTSA

seme-alaba izan zituzten; Pepita, Miguel, Francisco eta Elisa. Baina bizitzaren gorabehera mikatzak tarteko, Pepitak eta Elisak bakarrik egin behar izan zuten bizitzaren parte handiena; bi anaiak gazte hil ziren eta gurasoak ere goiz joan zitzaizkien.

Elisa ezkondu egin zen, baina nahi baino lehenago alargundu ere bai. Antonio Sese Kataluniako buruzagi sindikal garrantzitsuarekin ezkondu zen 1930. urtean Tarragonan. 1937an Antonio Sese Lluís Companysen Gobernu Lan Saileko buru izendatu zuten. Generalitatera kargua hartzeko bidean zihoala, Sese zerman autoa tirokatu eta hil egin zuten. Oraindik ez da argitu eraso horren egileta. Elisa Uriz Pi alargun geratu zen eta ahizparen ondoan egin zuen bidea ordutik aurrera. Arrazoi bat edo bestea izan,





Pepita eta Elisa elkarren ondo-ondoan egon ziren bizitza osoan.

Esan bezala, XX. mendea hasi berrikan Badostaindik Madrila mugitu zen familia osoa. XIX. mende amaiera hartan ohikoa zen baino giro irekiagoan haziak izan ziren bi ahizpak eta gurasoek unibertsitate mailako ikasketak egitera animatu zituzten, nahiz eta garaian ohikoagoa zen alabak senar on bat lortzera eta seme-alabak ilaran ekartzera bultzatzea. «Ez daukagu datu zehatzik, baina badira pistak. Pentsatzekoa da bere aitak ideia liberalak zituela. Lehen urteetan ere joera sozialista zuten eskola laikoetan aritu ziren. Oso umetatik etxetik ideologia oso aurrerakoia jaso zuten», azaldu du Manuel Martorell historialariak. Uriz Pi ahizpen inguruko liburu bat osatua du.

Pepitak eta Elisak Madrilgo Irakasleen Eskolan egin zituzten ikasketak lehendabizi eta Irakasle Ikasketen Goi Mailako Eskola sortu berrian ondoren. Bien artean hamar urteko aldea zegoen eta esan daiteke Pepitak irekitako bidean segitu zuela Elisak. «Pepita aurretik zihoan beti, denean. Elisak



Lerroon gainean, Antonio Seseren hilketaren ondorengo segizioa. Ezkerretik hirugarrena da Elisa Uriz Pi, Seseren alarguna. Generalitatean Lan Saileko ministro kargua hartzera zihoala tirokatu eta hil zuten Antonio Sese, Kataluniako buruzagi sindikal garrantzitsua zena. Lerro hauen alboan, Elisa bera ageri da nazioarteko prentsa irakurtzen. MUNDO GRAFICO- PCEn ARTXIBO HISTORIKOA

Pepitak eta Elisak bakarrik egin behar izan zuten bizitzaren parte handiena; bi anaiak gazte hil ziren eta gurasoak ere goiz joan ziren. Elisa ezkondu eta oso gazte alargundu zen

Pepita bere promozioiko lehena izan zen eta karrerako sari berezia ere jaso zuen. 1914. urtean, Gironako Pedagogiako Normal Eskolako irakasle izendatu zuten

ahizpak urratutako bide guztiei jarraitu zien, baina gazteagoa zenez, azkenerako ahizpa zaharrenak baina ekimen nabarmenagoak gauzatu zituen. Adibidez, Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean eta erbesteratutako emakumeen antolaketa hasi zenean –Emakume Antifaxisten elkarteak, Emakumeen Nazioarteko Federazio Demokratikoa...–, Pepitak dagoeneko dezenteko adina zuen. Elisa gazteagoa zen eta ahizpa zaharragoa ordezkatu zuen protagonismo sozial eta politikoari dagokionez», iritzi dio Martorellek.

Pepita bere promozioiko lehena izan zen eta karrerako sari berezia ere jaso zuen. 1914. urtean, Gironako Pedagogiako Normal Eskolako irakasle izendatu zuten. Bertan liburutegia sortu zuen eta ikasleen lehen elkarteak bultzatu. 1921. urtean Lleidako emakumeen Normal Eskolara mugitu zuten. Elisa, bere aldetik, Tarragonako Normal Eskolako musikako irakasle izendatu zuten 1922. urtean.

PEDAGOGIA BERRIEI BEGIRA

Uriz ahizpek gertutik jarraitzen zieten XX. mendearen hasiera hartan pizten ari ziren korrante pedagogikoei. Europa mailan sortzen ari ziren proiekturik berritzaileenatik edaten zuten eta ideia iraultzaile horiek praktikan jartzen zituzten lan egiten zuten Irakasle Eskoletan. Mende erdi aurreratu ziren “eskola modernoak” deitzen dena garatzeko eta gaur egun erabat onartuta dauden ideia pedagogikoak defendatu zituzten. Aitzindaritzak horrek, baina, arazo dezentek sortu zituzkien garaiko jendarte itxian.

Bi ahizpa horien ibilbidean garrantzi handia izan zuten



Irakaskuntza Librerako Era-kundeak eta Ikasketa eta Ikerketa Zientifikoak Zabaltzeko Batzordeak. Horiek emandako bekei esker egin zuten aurrera beren ikerketa pedagogikoe-tan. Beka horiei esker Pepitak egonaldiak egin zituen Belgikan eta Parisen, puntako pedagogoen proposamenak lehen lerrotik ezagutzeko. Elisa, berriz, Genevara joan eta handik bueltan eraman zuen gimnastika erritmikoa irakaskuntzan txertatzeko proiektua.

BEGIRADA IRAULTZAILEA

«1920 inguruan kokatu behar dugu egoera ulertzeko. Uriz Pi ahizpek beren azalean sufritu zituzten garaiari lotutako prozesuak. Pepita Urizen kontrako txosten batean jasotzen denez, ikasleak biluzik joaten ziren pasilloetan eta orgia sexualak egiten zituzten. Pentsa nola jartzen zituzten. Uriz Pi ahizpek hezkuntzara ekarri nahi zituztenak erabat normaltzat jotzen ditugu gaur egun, baina bere garaian sekulakoak ziren. Adibidez, neskatoak gimnastika erritmikoa egiteko, kirola egiteko galtzamatotzak eta kamisetak janztea, eskanda-



lagarri ikusten zen. Eskolan gimnasia edo dantza egitea, neskak eta mutilak elkarrekin jartzea, liburu alternatiboak irakurtzea... Uriz Pi ahizpek txertatu nahi zituzten metodoak oso iraultzaileak ziren».

Eta begirada iraultzaile hori ez zitzaion doan atera. Lleidako eskolan berehala izan zituen arazoak Pepitak, haren irakaspenek sutan jarri

Elisak kargu garrantzitsua izan zuen Emakumeen Nazioarteko Federazio Demokratikoan (FDIM). Espainiako eta munduko lehen elkarte feministetan jardun zuten Uriz Pi ahizpek, Elisak bereziki. Goiko irudian, FDIM erakundearen bilera bateko bi une desberdin. Mundu osoko emakumeak elkartu ziren bertan.
PCEn ARTXIBO HISTORIKOA

Eskolan gimnasia edo dantza egitea, neskak eta mutilak elkarrekin jartzea, liburu alternatiboak irakurtzea... Uriz Pi ahizpen metodoak oso iraultzaileak ziren garai hartan

Amesten zuten eskolak haurren formakuntza intelektuala, morala eta orokorra bultzatu behar zuten; desberdintasunak ezabatu; ikasleak mendeko izatetik herritar izatera bultzatu...

baitzituen eskolako zuzendaria eta lankide batzuk eta Lleidako ahots kontserbadoreenak. Lleidako Familia Buruen Elkarte Nazionalak aurki eskatu zuen Pepita Uriz Pi kaleratua izatea. Haien esanetan, «Estatuaren erlijioaren eta kristau moralaren kontrako doktrinak zabaltzen ditu eta ikasleak lotsarazten ditu, modu gordinean eta arbelean marrazki eta guzti azaltzen baitie zer den sifilisa, zeintzuk diren ugalketarako organoak eta, era berean, emakumeak bere gorputza nahi bezala erabiltzeko duen eskubideaz hitz egiten die».

Josep Miralles apezpikuak, berriz, Bartzelonako Unibertsitateko errektorearen aurrean Pepita Uriz Piren kontrako

salaketa jarri zuen bere ikasleei «moral zalantzarria» zuten liburuen irakurketa agintzen omen zielako. Diziiplina espedientea zabaldu zuten Pepita Uriz Piren kontra eta erabaki horrek hautsak harrotu zituen puntako hainbat intelektualen artean. «1921ean gertatu zen prozesu hori. Espainiako intelektual sonatuek –Santiago Ramon y Cajal, Miguel Unamuno, Antonio Machado, Manuel Bartolome Cossio...– idatzi bat argitaratu zuten Pepita Urizen defentsan eta katedra askatasunaren alde. Horrek guztiak garaiko Hezkuntza ministroaren dimisioa ekarri zuen», kontatu du Martorellek.

Badostaingo ahizpek Katolunian osatu zuten nagusiki

beren ibilbide pedagogikoa. Bertan borborka zegoen mugimendu berritzailearen parte aktibo izan ziren Pepita eta Elisa. Irudikatzen zuten eskola horrek haurren formakuntza intelektuala, morala eta orokorra bultzatu behar zuen; desberdintasunak eza-batu behar zituen jatorrian eta helburuetan; ikasleak mendeko izatetik herritar izatera bultzatu behar zituen; begirada kritikoa garatu behar zuten. Herria berritzeko, eskola berritu beharra zegoen. Eta katalanez ikastea defendatzen zuten.

Berritzailek ziren, era berean, hezkidetzaren defendatzen zutelako. «Pepita Urizek, berak zuzendu zituen zentroetan, saiakera egin zuen nesken eta mutilen klaseak batzeko». Horrez gain, irakaskuntzan jarduten zuten langileen eskubideak eta duintasuna defendatzea ere helburu garrantzitsua zen. Eta Kataluniako hezkuntzako langileen sindikatu nagusian parte hartu eta bertako lehen-dakari izatera iritsi zen.

1950eko hamarkadan Nazio Batuen Erakundeak Haurren Eskubideen Adierazpena eta Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna aldarrikatu zituen. Horretan parte handia izan zuen Elisa Uriz Pik. «Elisak modu sutzuan defendatu zituen beti haurren eskubideak. Emakume Espainolen Elkargoa lehenengo eta Emakumeen Nazioarteko Federazio Demokratikoan ondoren, indar handiz bultzatu zuen haurren eskubideak aldarrikatzeko beharra. Eta eskaera hori NBERa iritsi zen elkarte horien bidez. Baina hori betidanik haurrekin egin izan zuten lan pedagogikoaren emaitza zen, ondorioa. Europan sortzen ari ziren ideia pedagogiko berrie-



BADOSTAINEN OMENALDI XUME BATEKIN HASI ZEN DENA

Manuel Martorell historialariak Jesus Monzon buruzagi komunista nafarraren biografia berreskuratzeko lanetan ari zela jakin zuen Uriz Pi ahizpen garrantzia historikoaren berri. Ezusteko ederra izan zen. «Hasiera batean jakin nuenez, XIX. mende amaieran Nafarroan jaiotako bi ahizpa izan ziren, hezkuntza grina handiz bizi zutenak eta konpromiso sozial eta politiko sendoa zutenak. Zaharkitutako hezkuntza sistema espainiarra berritzeko egin zuten lanaren erreferentzia ugari topatu nituen. Emakumeen eskubideen defentsan Estatuan sortutako lehen elkarteetan kokatzen zituzten idatziak ere topatu nituen. Baina Manuel Azkaratek, Frankismoan PCE alderdiaren kanpo politikaren arduradun nagusiak, lagundu zidan ahizpak kokatzen».

Azkaratek Miret anaien alboan kokatu zituen Uriz Pi ahizpak, Parisen Frantziako Erresistentziako lehen taldeetan. Hariari tira eginez jakin zuen Martorellek FDMI (Emakumeen Nazioarteko Federazio Demokratikoa) erakunde oso parte hartze garrantzitsua izan zutela eta Elisaren bultzadaz aldarrikatu zituela Nazio Batuen Erakundeak Haurren Eskubideen Adierazpena eta Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna 1950eko hamarkadan.

«Pepitaren eta Elisaren bizitzak sekulakoak izan ziren eta haien ekarpena izugarria nazioarte mailan.

Hala ere, inork gutxik ezagutzen genituen».

Manuel Martorellek eskutitz bat idatzi zuen Badostaingo kontzejura bi ahizpen berri emanez. Zilegia iruditzen zitzaion gutxienez beren herrian omenaldi xume bat antolatzea. «Orduan sortu zen haien biografiak berreskuratzeko ideia. Asmoa erakusketa grafiko bat egitea zen, baina apenas zegoen materialik horretarako». Uriz Pi ahizpen ondorengoek utzitako argazki batzuk eta Berlindik iritsitako eskutitz sorta bat. Ez zegoen gehiago.

Berlingo helbide horien atzetik joatea bururatu zitzaion Martorelli, Badostaingo agintarien bultzadaz. Eta horrela, «kasik detektibe lana eginez», iritsi zen Olga Garcia Dominguezengana. Olga eta bere gurasoak –Isabel Dominguez eta Adolfo Garcia– izan ziren Elisak bere azken urteetan izan zuen familia bakarra. Bere ahizpa Pepita hil ondoren, bakarrik geratu zen Berlinen eta familia horrek eman zizkion laguntasuna eta babesa. Olga Garcia medikua da eta Elisaren azken egunak berak eta bere amak samurtu zituzten ospitalean bertan. Garciak ondo gordeta zituen Elisaren gauzak; idatziak, argazkiak, liburuak... Hortxe Uriz Pi ahizpen inguruko erakusketa grafiko bat osatzeko altxorra.

«Olga Garcia topatzea klabea izan da. Berari esker osatu ahal izan dugu

Olga Garcia Dominguez –zutik– bere guraso Isabel eta Adolfoekin eta Elisa Uriz Pirekin, eskuin aldean betaurrekoekin. Argazkia Berlinen bizi zirenekoa da. OLGA GARCIA DOMINGUEZEN FUNTSA

erakusketa», nabarmendu du Martorellek. 2013an Badostaingo plaza nagusiari Uriz Pi ahizpen izena jarri zioten eta medikua bera etorri zen omenaldira. 2014an Sarrigurengo eskolari Josefa Uriz izena jarri zioten.

Eta hasieran erakusketa txiki bat zena liburu bihurtu zen gero. Manuel Martorell historialariak, Salomo Marques Gironako Unibertsitateko Hezkuntzaren Historiako irakasleak eta Mari Carmen Agullo Valentziako Unibertsitateko Hezkuntzaren Historiako irakasleak elkarrekin josi zuten «Pioneras, Historia y compromiso de las hermanas Uriz Pi», Txalapartak argitaratua. Hasierako erakusketa txiki hura lau hizkuntzatan topa daiteke dagoeneko eta espero baino toki gehiagotara iritsi da; Euskal Herrian, Estatu frantsesean, Alemanian eta Katalunian nagusiki. Uriz Pi Elkartearen ere sortu dute. Bertako buru da Alfonso Etxeberria, ekimena martxan jarri zen garaian Egues-Eguesibarreko alkatea zena eta proiektua grina handiz bultzatu duena.

Orain, Nafarroako Gobernuak bere egin du 2013an piztutako metxa hura eta datozen egunetan Uriz Pi ahizpen inguruko erakusketa zabalago bat inauguratuko du Iruñeko Planetariumean.

Martorellek aitortu duenez, helburua erakusketa Estatu frantsesean barna mugitzea da, zor historiko mingotsa sumatzen baitu. «Frantziak prestatutako jendea behar zuen alemaniarrek garaitzeko eta 36ko Gerran aritutako erbesteratuak ezinbestekoak izan ziren. Baina 1950. urtean, Bolero-Paprika operazioa martxan jarri eta ehunka militante komunista kanporatu zituzten, inbasio sobietar bat prestatzen ari zirela leporatuz. Pepitak eta Elisak orduan alde egin zuten Alemaniako Errepublikara Demokratikora». Martorellen ustez, Frantziaren jokabidea ez zen justua izan eta horrela jaso beharko luke Europako historia garaikideak. Historialariak uste du zauri hori samurtzen lagundu dezakeela erakusketak.

nak Espainiara ekartzen ahalegindu ziren», esan du Martorellek.

GERRAKO HAURREN OSASUNA

Bide beretik 1936ko gerran lan garrantzitsua egin zuten maila sozialean. Beste irakasle eta herritarrekin batera – emakumeak nagusiki– “Ajut Infantil a Reraguarda” izeneko ekimena sortu zuten. Hartara, ehunka udaleku atondu zituzten gerratik ihesi zebiltzan haurrei babes eta jatekoa emateko. Astero haurren pisua kontrolatzeko ekimenak ere bultzatu zituzten, haur bakoitzari bere osasun fitxa lepotik zintzilik jarritz.

Emakumeen eskubideen defentsan ere irmo aritu ziren Pepita eta Elisa. 1934an Katalunian Emakume Antifaxisten Elkartearen sorrera bultzatu zuten eta 1937an “Emakume Espainolen Manifestua” sustatu zuen Elisak. Bertan mundu osoko emakumeei laguntza eskatzen zien «gure seme-alabak ez daitez gosez eta hotzez hil».

1946. urtean Parisen argitaratzen hasi zen “Mujeres Antifascistas Españolas” aldizkarian parte hartze garrantzitsua izan zuen Elisak eta 1940ko eta 1950eko hamarkaden bitartean pisu nabarmena izan zuen Emakumeen Nazioarteko Federazio Demokratikoan (FDMI).

«Elisa FDMI erakundeko zuzendaritzako kide izan zen. Hori izan da ikerketan topatu dudana beste ezustekoetako bat. Emakumeen eskubideen alde mundu mailan inoiz existitu den erakunde garrantzitsuena da. Desklasifikatutako 1962. urteko CIAren txosten batean maila berean jartzen dituzte Dolores Ibarruri eta Elisa Uriz. Emakumeen mun-



Pepita Uriz Pi erraldoia, Eguesibarko konpartsako pertsonaia. Pepitak azken urteetan partxe beltz bat erabili zuen begian, gaixotasun bat zela-eta. BADOSTAIN.NET

du mailako erakunde horri buruzko txosten batean jasotzen denez, federazio horretan Espainiako emakumeak ordezkatzten dituztenak Dolores Ibarruri lehendakaria eta bere bigarrena, Elisa Uriz, dira», nabarmendu du Manuel Martorell historialariak.

Mundu ikuskera oso zabala zuten. Esaterako, Elisa homosexualitatearen alde azaltzen zen, hori egitea batere samurra ez zen garaian eta jendartean. «FDMI erakundea azkenean hautsi egin zen, arrazoi asko tarteko. Federazioaren barruan sortu ziren eztabaidetako bat hori izan zen hain justu: zein jarrera hartu homosexualitatearen aurrean. Italiarrak, beti aurreratuagoak eta irekiagoak zirenak, lesbianismoa onartzen zuten. Aldiz, sektore sobietar gogorragoa kontra agertzen zen. Elisa Uriz berez sektore sobietar gogorago horren baitan zegoen, baina homosexualitatearen gaian italiarren alboan kokatu zen. Berak onartu egiten zuen», kontatu du Martorellek.

Gaineratu duenez, ez zen izan Elisak italiarrekin bat egin zuen aldi bakarra. «Elisak munduko emakume guztien historia idaztea proposatu zuen FDMI-n. Afrikako eta Asiako erakundeekin lanean hasi zirenean, ordezkaritza bakoitzari enkargu bat egin zioten: haien herrialdean emakumeek bizi duten egoeraren inguruko txosten bat egitea. Horrela, FDMiko artxiboetan mundu osoko txosten mordoa pilatu zuten. Hori ikusita, Elisak proposatu zuen lehen aldiz munduko emakumeen historia osatzea. Italiarrak Elisaren proposamena babes-tu zuten, baina txinatarrak eta errusiarrak erabat kontra agertu ziren, emakumearen histo-

ria langile klasearen historiaren parean idatzi behar zela uste baitzuten. Elisak bere idatzietan jasotzen duenez, asko harritu zuen jarrera hark, baina bere proposamenak nahikoa babes ez zuela ikusita, albo batera utzi zuen ideia».

FRANTZIARA IHES

Alderdi komunistan militatu zuten bi ahizpek eta ardura postuak izan zituzten hainbat elkarte antifaxista eta komunistatan. Frankistek Bartzelona hartu zutenean, Frantziara ihes egin zuten, 1939an. «Frantzian errefuxiatuei laguntzera bideratu zituzten beren indarrak, eta iheslariei kontzentrazio esparruetatik ihes egiten lagundu zieten. Harrapatuta geratu ziren Frantzian eta faxismoaren kontrako borrokan jarri zuten arreta osoa».

Kontzientzia politiko sendoa zuten. Frantziako Erresistentziako lehen taldeetan pisu handia izan zuten. «Oso-oso garrantzitsuak ziren. Parisen zeuden Erresistentziako kide espainiarren bozeramaileak ziren nafar ahizpak. Hori izan zen niretzako aurkikuntzarik handiena. Hortik tiraka jakin nuen oso-oso garrantzitsuak zirela beste hainbat arlotan ere», azaldu du historialariak.

Frantziako Erresistentzian Josep eta Conrad Mireten taldekoak ziren Uriz Pi ahizpak. 1942an Gestapok taldea atxilotu zuen, baina Pepitak eta Elisak alde egitea lortu zuten. Conrad Miret bortizki torturatua izan zen eta Josep Miret naziek erail zuten.

1951n Frantziatik kanporatu zituzten beren militantzia komunistagatik eta Berlin sobietarrera joan ziren bizitzera. Biak han zendu ziren, Pepita 1958an eta Elisa, 1979an.

LUR AZPIKO ABENTURAK



"ZIN DAGIT" ESTILOKO BUZO HORIA.



"ONGI ETORRI ESKOLARA" UDAZKENEKO DISEINU KUTTUNEN BILDUMA.




"BUSSINES ESKAFANDRAK"



"KIROLCOVID" FASHION DENBORALDIA.



LUR AZPIKO JOERA BERRIEN DESFILEA.



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS

DESINFORMAZIOA

Covid-19ari buruzko desinformazioak eragin masiboa du iturria sinesgarria denean

 **KOMUNIKAZIOA** / Augustin Lopez

Martxoan, koronabirusaren pandemia Europan hasi zenean, Olivier Veran Frantziako Elkartasun eta Osasun ministroaren tuit batek ibuprofenoa ez hartzeko gomendatu zien covid-19 gaixotasuna zuten pazienteei. Gainera, ohartarazi zuen ezaugarri analgesiko eta antipiretikoak dituen botika antiinflamatorio hori hartzeak gaixoen heriotza tasa handitu egiten zuela, nahiz eta hori frogatzen zuen ebidentzia zientifikorik ez egon. Informazio horrek albiste faltsu bati bide eman zion, eta hura hainbat herrialdetan zabaltzen zen. Sergi Xaudiera Kataluniako Unibertsitate Irekiko (UOC) doktoregaiak eta Ana Sofia Cardenal UOCk Zuzenbideko eta Zientzia Politikoko Ikasketetako ikerlariak Alemanian, Estatu frantsesean eta espainolean, Herbehereetan eta Italian egiaztatu gabeko informazio horren ibilbide digitala aztertu dute Twitter bidez. Emaizten arabera, desinformazioaren eragina masiboa da iturri sinesgarriek albistearen hedapenean parte hartzen dutenean. Kataluniaren kasua aztertu duen lanak, halaber, tokiko kanalek desinformazioa zabaltzeko edo desaktibatzen duten garrantzia nabarmendu du; izan ere, azterlanaren ondorioen arabera, eskualdeko kanalek dute eragin handiena lurraldez lurralde.

Harvard Unibertsitateko "The Harvard Kennedy School (HKS) Misinformation Review" aldizkarian argitaratu zen ikerketa hori, eta Sergi Xaudieraren doktore tesiaren parte da. Tesi horrek larrialdi egoeretakoa desinformazio kasuak aztertzen ditu. «Orain arte, de-

Covid-19 gaixotasuna dutenentzat ibuprofenoa erabiltzeak dituen ondorio kaltegarriak buruzko albiste faltsuaren bizitza digitala aztertu dute, tartean frantses ministro batek egindako tuit bat eta haren eragina. Ikerketaren ondorioa argia da: sinesgarritasuna duten iturriek albistearen hedapenean parte hartzen dutenean, masiboa da desinformazioaren eragina.



sinformazio kanpaina gehienak erabiltzaile arruntek edo hedabide alderdikoiek gidatzen zituzten, baina kasu honen garrantzia da ordezkari politikoak, hala nola Frantzia-

ko Osasun ministroa, eta hedabide errespetagarriak izatea istorio engainagarri horren bozgorailuak eta audientzia handitzen dutenak», azaldu du ikertzaileak.

AHOTS MEZU BATETIK...

Frantziako ministroaren Twitterreko mezuak eragin zuen ibuprofenoari buruzko albiste engainagarria, baina UOCko ikertzaileek mezuaren ibilbide

publikoa arakatu, eta Alemanian bidalitako Whatsappeko ahots mezu bateraino iritsi dira. Ondoren, mikroblogen plataformako aztarna digitaletik abiatuta, aztertu dute nola zabaltzen zen istorioa bi astez jatorrizko herrialdetik Herbehereetako, Estatu frantseseko eta, azkenik, Estatu espainoleko eta Italiako erabiltzaileetarako, bai eta iturri sinesgarriek, hala nola ordezkari politikoek eta errespetatutako komunikabideek, desinformazioaren sustatzaile gisa izan zuten zeregina ere.

Estatu frantsesean eta Alemanian informazioa hedatzeko moduaren desberdintasunean ikusten da iturri ofizialen garrantzia. «Mezua Alemanian sortu bazen ere, ez zuen arrakasta handirik izan: ahots mezu hainbat erabiltzaile bidali zitzaizkion, baina ezin izan zenez egilea identifikatu, sinesgarritasuna galdu zuen eta elkarriketa globala, funtsean, hari sona kentzea eta gaiaren gaineko txantxak egitea izan zen», nabarmendu dute ikerketaren egileek. Estatu frantsesean, aldiz, iturri sinesgarri batek sustatu zuen mezua eta desinformazioak han izan zuten eraginik handiena aztertutako herrialdeen artean. Horrez gain, ia ez dago informazioa gezurtatzen duen elkarriketarik. Izan ere, azterlanak erakusten duenez, ministroaren tuitaren ondoren beste iturri fidagarri batzuek, hala nola hedabideek, albistearen inolako egiaztapenik egin gabe errepikatu zuten, eta horrek informazioa are gehiago zabaltzen lagundu zuen.

«Bereziki da arriskutsua iturri fidagarriek eragindako desinformazioa, konfiantzazko iturriak direnez, jendeak gogoeta gutxiago egiten bai-

tu, eta gomendioak sinestera jotzen baitu, zalantzan jarri gabe. Gainera, larrialdi egoeretan kontu handiz ibili behar da horrelako ekintzekin, okerreko tratamendu batek ondorio atzeraezinak izan baititzake», nabarmendu du ikertzaileak.

Aztertutako gainerako lurraldeak muturreko bi kasu horien artean daude, eta albiste engainagarria errepikatzen duten mezuak eta egiazkoa dela ukatzen duten beste batzuk konbinatzen dituzte. Estatu espainolean eta Italian, hedabideak eta kazetariak izan ziren desinformazioa salatzen lehenak, frantses ministroaren adierazpenak ezbaian jarritz. Martxoaren 18an, beste olatu bat agertu zen lurralde guztietan eta berehala baztertu zuten erabiltzaileek. Italian, ordea, berriro ibili zen indarrez martxoaren 20tik 23ra.

DIMENTSIO LOKAL HANDIA

Informazio horren ibilbideak erakusten du zein garrantzitsua den gobernuentzat gizar sareetan presentzia aktiboa izatea. «Larrialdien kudeaketari buruzko elkarriketak detektatzeko entzute aktiboa praktikatzeko azkar jarduteko aukera ematen du, egiazkoa ez den informazioak agerikotasun maila jakin bat lortzen duenean», azaldu du. Gainera, ikertzaileek ikusi zutenenez, Osasunaren Mundu Erakundeak eta Sendagaien Europako Agentziak informazioaren egiazkotasuna baztertzeko zuten arren, informazio hori zabaltzeko abiadura ez zen murriztu eskualde bakoitzeko kanal ofizialek gezurtatu arte. Horrek, egileen arabera, adierazten du informazioaren hedapenean eskualdeak dimentsio sendoa duela.



Olivier Veran frantses ministroak (aurreko orrialdean) botika bati buruzko informazio faltsuaren hedapenean parte hartu zuen.
Brett JORDAN

Tokiko iturri ofizialek albiste faltsuak agerian uzteko duten eragina ebaluatzeko, ikertzaileek Kataluniaren kasua aztertu zuten. Emaitez erakusten dute egiaztatu gabeko informazioa zabaltzen lagundu zuten katalan erabiltzaile gehienek ez zutela iturri ofizialik erabiltzen hura argitaratzeko. Bestetik, desinformazioa agerian uzten laguntzen zuten mezuak partekatu zituzten pertsona gehienek kanala ofizialen jarraitzaileak ziren.

«Desinformazioari eremu lokaletik egin behar zaio aurre. Narratiba faltsu bat es-

kualde batean dabilenean, tokiko erakundeek informazioa egiaztatzen eta gezurtatzen lagundu behar dute, hala behar denean. Ikusi dugu tokiko kanala ofizialei jarraitzeak eragin positiboa duela, baina kanala horiek informazio faltsua sustatzen dutenean, lurralde horretako herritarrentzat informazio arduratsua ikusezin bihurtu daiteke», azaldu du ikertzaileak. Alde horretatik, sare sozialen eginkizuna bereziki zaila da horrelako kasuetan. «Plataforma sozialek –kasu honetan, Twitterrek– gehiago egin dezakete eta egin behar dute,

haien ekosistemetan informazio faltsua ibil ez dadin, baina aztertutako kasua bereziki kritikoa da, kanala sinesgarriak eta plataformak egiaztatuak baitira behar ez den informazioa ematen dutenak», azaldu du.

Ibuprofenoaren kasuan bezalako desinformazio egoeretan, ikertzaileek gomendatzen dute iturri ofizialak erabiltzea, jasotzen dugun informazioari buruzko jarrera kritikoa izatea eta, ahal den guztietan, beste jatorri bateko eta geografikoki urrun dagoen iturri batean baino gehiagotan egiaztatzea. Horrez gain, erakundeetan zibersegurtasun esparrua planteatzen dute, informazioan eta komunikazioan oinarritutako ikuspegitik. «Orain arte, ikuspuntu teknologikotik baino ez da aztertu zibersegurtasuna, baina kasu horiek erakusten dute mehatxuak teknologiatik harago doan dimentsioa duela, eta alderdi sozialak ere aztertu behar direla», dio Sergi Xaudierak.

Emaitzen arabera, tokiko iturriek garrantzi eta eraginkortasun handia dute albiste engainagarrien zabalkundean eta haien aurkako borrokan

Jasotzen dugun informazioarekiko jarrera kritikoa izatea eta iturri batean baino gehiagotan egiaztatzea gomendatzen dute ikertzaileek, ahal dela jatorri desberdinekoetan



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Ikasturte hasierako matematikak


Ez dakit irakasle senagatik izango den edo hezkuntza sistema murgilduta dagoen anabasak eragindako ezinegontik, baina matematikak irailerako utzi eta penkoa irabazi dutenei apunte pare bat eman nahi nizkieke ezer baino lehen. Jakinik murrizketen eta zerbitzu publikoak aurreztearen profesionalen helburua gela bakoitzeko ahalik eta ikasle gehien sartzea dela –eskolaren funtzio gorena haur eta gaztetxoekustodia izatearen ildotik– ariketa pobre xamarra egin dutelakoan naiz, haurrak gelan kokatzeko bi irizpide eman baitira soilik: metro eta erdiko distantzia minimoa eta 2,25 m²-ko azalera minimoa ikasleko. Antza, $1,5 \times 1,5 = 2,25$ da egin duten matematika bakarra, gelak paretak dituela ahantziz, eta ikasleak paketatzea askoz eraginkorragoa izan daitekeela ikusi gabe. Irudiko A eta A' gelek erakusten dutenez, $7 \times 8 = 56$ m²-ko gelan 30 eta 35 ikasle sar litezke hurrenez hurren (irakasleari tarte bat utziz, 25 eta 30 nahi bada) 1,5 metroko distantzia mantenduz, 2,25 m²/ ikasle irizpidea aplikatuz gehienez 24 ikasle sar ditzakegunean 56 m²-ko gelan. Oso optimizazio kaxkarra Cristina, adi Jokin!

Ikasleek, baina, bolumena dute, eta baita noranzkoa ere. Egoera errealagoa irudikatzearen irudiko ahuakate erdiaren forma proposatu dut: ikaslearen diametroa metro erdikoa (zeozer mugituko direlakoan) eta segurtasun distantzia bi metrokoa aurrerantz eta bakararra alboetara. Irakaslea berriro arbuizatzuz, eta pakeztatze hexagonalaz (B gela), 20 ikasle-
ra jaitsiko da edukiera maximoa orain, 15 bat irakaslea sartuz gero. Baina eta ikasleak, bolumena eta no-

ranzkoa izateaz gain, ikastera doaz eskolara, ez Pink Floyden “Another Brick In The Wall” bideoklipa erreproduzitzera (oxala, amaiera arte babiliz!). Banaketa magistrala apurtzeak aukera pedagogikoak zabaltzeaz gain –legeekin bat datorrena, bide batez–, ikasle kopuru handiagoak ere baimen ditzake espazio berean, apika intuizioak agintzen digunaren aurka, eta ziur asko irakasle andanak aspalditik kalkulatu eta egina duten moduan. Hemendik irudiko hiru proposamen xumeak ahalegin horretan ari zareten hezitzaile guztiei.

Matematika guztiok, dena den, ariketa hutsala izan daitezke birusaren hedaduraz jasotzen ari garen azken ebidentziekin. Asko zabaldu da abuztu amaieran “British Medical Journal” aldizkariak argitaraturiko ikerketa, jende pilaketa egoera ezberdinentzat

kutsadura arrisku ezberdinak jasotzen dituen taula berde, hori eta gorria (Elhuyarrek euskarara ekarria), enfasia distantzian baino gelaren aireztapenean eta denboran jartzen duena. Aurreikuspen horiekin bat, positibo bakarrak musukorik gabeko 23 bidaiari kutsatu ditu autobus batean 50 minutuko esposizioan. Aurreko artikuluan aipatzen nuen petrikor goxoa sudurrarazten diguten aerosolek eurek garraiatzen ei dute ditxosozko birusa ere, eta horregatik da garrantzitsua ikasgelako airea berritzea. Ez dakit martzianada bat den, baina meatzari-
ek kanarioak nola, behar bada aerosol bidez zabaltzen den lurrinen bat jar liteke gela erdian, eta, bazterrean hautematen denean, klasea eten eta gelako aireztapena behartu. Zaila izango da, baina hezkuntza eta osasuna bermatzeko buru-bihotz ari zaretenei besarkada (digital) estua hemendik! •



{ koaderno } **Joana Garmendia**

Euskara inposatzeaz

Eusko Jaurlaritzako sailburu eta goi kargudun guztiak euskaldunak izan daitezela eskatu dute hirurehunetik gora kazetarik. Batzuei ez zaie ondo iruditut. Herritarron ehuneko handi bati botere guneetan egoteko aukera ukatzea omen da. Ez naiz sozilinguista, ez dakit ezer hizkuntza politikei buruz, eta ez naiz horretan sartuko. Baina euskararen inposizioaz kexu altxatzen diren diskurtso horietan beti iruditzen zait daudela hizkuntzari buruzko oinarri-oinarrizko bizpahiru ideia oker. Hona.

Bat: etnizistak omen gara. Alegia, talde jakin bateko partaideentzat soilik nahi omen ditugu karguak, ordezkariak, aginte lekuak. Beste talde bat baztertzeko, jakina. Baina, esango nuke, gisa honetako eskaera batean hori ulertu duenak, berak daramala etnizismoaren karga sorbalda gainean: emantzat jotzen ari da euskara jakitea talde bati dagokion zerbait dela; euskara jakitea, nola esan, jende baten esentziari-edo dagokiola. Bada, ez: hizkuntza izango da etnia bat bereizteko ezaugarrietako bat, baina, testuinguru honetan, kazetariak egin duten eskaera horretan, ez gara horretaz ari. Ez gara jendearen etnia, izen-abizen, herren politiko edo jatorriaz ari. Euskaraz jakitea, testuinguru honetan, gaitasun bat da, informatikan trebea, estatistikan aritua izatea edo mekanografiatzen jakitea diren bezalaxe.

Bi: euskaraz ez dakitenak gutxien omen ditugu. Ez ote da alderantziz: euskararen inposizioaren aurka egiten duten horiek erdaldun elebakarren irudi oso gutxieslea egiteko joera dute. Badirudi herri honetan bi motatako haurrak jaiotzen direla: batzuk hizkuntza bakarrarekin, besteak birekin. Edo, are okerrago: batzuk bi hizkuntza ikasteko gai direnak eta, besteak, gai ez direnak. Bi hizkuntzarekin jaiotzen denak abantaila du besteen gainean, eta ez da bidezkoa abantaila hori erabiltzea, hutsune edo ezintasun horrekin jaio denaren aurka. Horrelako zerbait ulertzen diet beti beraien diskurtsoetan.

Herri honetan batzuek gaztelania dute ama hizkuntza; beste batzuek, euskara (EAEz ari naiz, jakina; baina EAEz ari ziren, ezta?). Badira horiez aparteko ama hizkuntza dutenak, edo hizkuntza bat baino gehiago dituztenak, pare-parean, ama hizkuntza. Hemen dator sorpresa: ama hizkuntza euskara dugunok, den-denok, gaztelaniaz ikasten dugu. Baita gure eguneko bizitza euskara hutsean egin genezakeenok ere. Non eta euskararenak omen diren ikastola horietan ikasten dugu, askok; eta, nola eta kostata, batzuek. Baina ikasten dugu, eta punto. Bere lanean gaztelaniaz egin behar duenak, ondo egin behar du. Eusko Jaurlaritzako sailburu izan nahi duenak, primeran. Hori badakigu.

Hiru: baina euskara zaila da. Eta, beraz, ez dira gauza bera euskal hiztun bati gaztelaniaz ikasteko exijitzea eta erdal hiztun bati euskaraz ikasteko exijitzea. Zaila ez, euskara desberdina da. Gaztelaniaz desberdina, esan nahi baita. Hori egia da, eta ziur nekeza dela euskararen aditz eta moldeak ikastea deklinabide sinpleko hizkuntza batetik zatozenez. Baina, hara, bigarren sorpresa: desberdin izatea bi aldetako harremana da. Gaztelaniarentzat euskara desberdin den neurri berberetan da desberdin gaztelania euskararentzat. Kontatuko nizueke ikastolan nola aritzen ginen “ce-ni-ce-ro” errepikatzen, arrotz zitzaigun fonema ikasteko. Edo oraindik hiztegiaren begiratu behar izaten ditudala v eta b ia guztiak. Eta tildeak, ene, tildeak. Eta zubia maskulinoa omen da; zubi bat, maskulinoa! Beraz, ez, mese-dez, ez kontatu guri zein zaila den hizkuntza oso desberdin bat ikastea.

Azkena: egoerari bere hotzean begiratu behar omen diogu, aurreko horiek ahaztuta. Ez dakigu denok euskaraz eta, beraz, ez da zilegi euskara jakiteko eskatzea gure gizartearen ordezkari aritzeko. Nondik begiratzen zaion izango da: gure gizartean ordezkari aritzeko (ere) euskara jakin behar ez bada, ez dugu inoiz denok euskaraz jakingo. •

Bere lanean gaztelaniaz egin behar duenak, ondo egin behar du. Eusko Jaurlaritzako sailburu izan nahi duenak, primeran

Soziolinguistika Klusterrak “Uler-saioak Metodologia” argitaratu du formatu digitalean eta nahi duenak eskuragarri du sarean. Metodologia berri eta berritzaile hori Aldahitz ikerketaren hiru garren emaitza da. Haren fokua ulermena da: euskara ulertzen ez dutenak gutxieneko ulermen mailara iristeko estrategiak biltzen ditu. Haren egile Pello Jauregirekin hitz egin du GAUR8k bere lan horren eta aurrekoen gainean, besteak beste.

«Uler-saioak Metodologia» honen foku bakarra ulerme-

na da. Ikuspuntua behintzat berritzailea da. Helburua mintzamina izan da beti; metodologia honena, berriz, ulertzea. Komunikazioaren giltza dela diozu.

Komunikazioaz hitz egiten dugunean, normalean hitz egitea hartzen dugu kontuan, baina haren atzetik ulertzea dago. Eta ulertzea oinarritzakoagoa da hitz egitea baino. Adibidez, guk euskaldunok euskaraz egin genezake baldin eta aurrean daukagun pertsonak ulertzen badu, nahiz eta ez hitz egin. Baina nahi dugunok egin dezakegu euskaraz ulertzen badu. Hala ere, gaurko egoera soziolinguistikoa da daukagun arazorik

handienetarikoa; alegia, talde batean euskaldun asko daude, hamarretik zortzi euskaldun dira, ongi hitz egiten dutenak... baina nahiko da bi egotea ulertzen ez dutenak, horrek zeharo baldintzatzen duelako, zeren baldin badaude bi pertsona ulertzen ez dutenak edo oso gaizki ulertzen dutenak, euskaldunok erdaraz egiten dugu, talde bezala ezin baitugu denen artean euskaraz egin. Orduan, nolabait esango genuke euskararen erabilera gora eramateko, suspertzeko, ulermen unibertsala ziurtatu behar dela. Jende guztiak ulertzea da gutxieneko baldintza. Horregatik, horretan jarri dugu fokua.

«Esango genuke euskararen erabilera gora eramateko, suspertzeko, ulermen unibertsala ziurtatu behar dela. Jende guztiak ulertzea da gutxieneko baldintza»

Ukertzea komunikazioaren giltza dela diozu.

Giltza hemen dagoela esaten dugu, hori da lortu behar dugun puntu garrantzitsu bat, eta estrategia bat behar dugu. Jendeak hitz egiteko prozesuak luzeak izaten dira, zeren hitz egiteak gaitasuna, denbora... eskatzen ditu, baina ulertzea askoz denbora gutxiagoan lor daitekeen gauza da, horregatik planteatzen dugu metodologikoki beste proposamen bat, jendea denbora laburragoan gutxienez ulertzera iristeko.

Gero, behin ulermena nolabait abiatuta, pertsona batek ulertzen baldin badu eta jendeak euskaraz egiten badio, pertsona horrek belarria egiten du eta poliki-poliki seguru asko pausoak emango ditu berak ere hitz egiteko. Baina jendea euskaraz entzuten ez badu, erdaraz egiten baldin bazaio, ez du inoiz aurrera egiten. Horregatik ulermenak gauza asko desblokeatu ditzake. Hori da gure ustea.

Ulermenik ezak hizkuntza eremu zulatua sortzen ditu, arazo latza, zure hitzetan.

Hala da, bai. Zulatua da euskarak ezin duelako eremu horretan denon arteko hizkuntza izan. Erdarak bai, funtzio hori egin dezake, denen arteko hizkuntza, denek ulertzen dutelako, baina euskarak eremu zulatuetan ezin du denen hizkuntza izan.

Frantsesak eta gaztelaniak, ez daukate eremu zulaturik?

Ez daukate, ez. Eremu zeharo betea daukate eta horregatik hizkuntza funtzionalak dira, denok komunikatzeko balio dutelako. Baina euskarak ez du balio baldin batzuek ulertzen ez badute. Talde batean baliteke batzuek erdaraz hitz egitea; ondo, hala nahi badute, edo erraz-



Jon URBE | FOKU

«Guk euskaraz hitz egin ahal izateko erne egon behar dugu, kontziente, eta hori, hain justu, ohituraren kontrako elementu bat da»

tasun handiagoa badute, egin dezatela erdaraz, baina ulertuko balute, beste batzuek euskaraz egingo lukete hala nahi dutelako. Orduan, bakoitzak egin dezala euskaraz edo erdaraz, baina euskara izan daiteke denontzako komunikazio tresna.

Euskaraldiak sortu zuen «Belarriprest» rola horretara bideratuta dago nolabait, ezta?

Logika horretan kokatzen da. Tradizionalki mezua beti euskaldunari begirakoa izan da, baina oraingo honetan Euskaraldiak bi elementu berri sartu ditu, eta bata ele biko elkarrizketak dira. “Belarriprest” figura interesgarria da; alegia, pertsona batzuek ulertzen dute baina ez dira hitz egiteko gauza, baina ulertzen badute, nahiz eta ele biko elkarrizketa izan, euskaldunok euskaraz egin dezakegu horrelako pertsonekin. Helburua da hitz egitera iristea, baina hara iristeko ulermena gutxieneko urratsa da, hori ziurtatzea. Horretan dago berrikuntza-edo.

Zure hitzetan, ulertzen ez duena oinarritzko ulertzaile bihurtzea da urrats «txikia bezain kualitatiboki esanguratsua».

Horrela da. Eta gainera, modu pragmatiko batez hitz eginda, askoz ere denbora laburragoan eta modu errazagoan lortzen du jendeak ulertzeko gaitasuna hitz egiteko gaitasuna baino. Gaur egun, helduen euskalduntze prozesuan, jendea hitz egitera iristeko prozesuak oso luzeak dira, baina ulertzea askoz ere denbora laburragoan lor daiteke.

Izan ere, zuk 60 orduko prozesua proposatu eta prestatu duzu, A1 mailako ulermena eskuratzeko. Egunez eguneko

programazioa jaso duzu liburuan.

Bai, hori da planteamendua, denbora horretan jendea gutxienez ulermen maila horretara iristea. Hori proposamen bat da; hala ere, hurrengo urteetan esperientziak izan beharko lirateke, programazio hori praktikara eraman eta ikusi 60 ordu denbora asko den edo gutxi den; beharbada, denbora gutxiagorekin ere lor daiteke. Guk proposamen bat egin dugu jendea animatzeko, euskaltegiko jendea edo beste-lako elkarteetakoak.

«Uler-saioak» Aldahitz ikerketaren hirugarren metodologia da. Beste bi sortu zenituzten aurretik.

Aldahitz proiektua lan munduan sortu da, lan munduan garatu da eta hor jarraituko dugu denbora luzez. Azken urteetan hiru metodologia garatu ditugu. Lehenengoa, “Eusle” izenekoa, jende guztiak ulertzen baina hala ere hitz egiteko ohiturarik ez duten taldeetarako pentsatuta dagoena.

Bigarren metodologia, “Uler-ritzeta”, beste egoera baterako pentsatuta dago: guk, euskaldunok, normalean gure solaskideak hitz egiteko zailtasunak dituela antzematen dugunean, erdarara jotzen dugu. Beraz, trebatze prozesu bat da, nolabait ele biko elkarrizketarako, euskara erraza erabiltzeko eta erdarara ez jotzeko aurrean daukagunak ulertu bai baina hitz egiteko zailtasuna duenean. Eta hirugarren hanka orain argitaratu duguna da.

Hiru metodologia horiek erronka banari erantzuten diote. Aipatu duzun «Eusle» metodologiak, hizkuntza ohituren arazoari. Zer gertatzen da horrekin, zer behar da,

hizkuntza erosoagoa, praktikoagoa, prestigiotsuagoa...?

Gauza asko aipatu dituzu eta horiek guztiek zerikusia daukate, bai prestigioak, bai erraztasunak, bai beste mila gauzak. Batzuk psikologikoak dira, norberarenak, eta horietan sar daitezke lotsa, erosotasuna, konfiantza falta... Beste batzuk sozialak dira: prestigioa, ezintasuna; alegia batzuek ulertzen ez badute, ezin duzu egin.

Ohitura ekintza bat, jokaera bat da, normalean pentsatu gabe egiten dena, oso natural ateratzen zaizun zerbait, pentsatu gabe eta ahaleginik egin gabe egiten duzun zerbait, automatikoa, inkontziente, erreflexu bat da. Eta euskararen kasuan, eta lehen aipatu dugunarekin lotuta dago hori, euskaldunok kasu gehienetan etengabe bizi gara hizkuntza eremu zulatuetan. Horrek esan nahi du euskaraz egin nahi duen pertsonak oso erne, oso kontziente egon behar duela norekin egin dezakeen euskaraz eta norekin ez; orain batzuekin euskaraz hasten naiz eta orain erdarara pasatu behar dut honek ulertzen ez duelako, eta gero... Horrek esan nahi du guk euskaraz hitz egin ahal izateko erne egon behar dugula, kontziente, pentsatzen egon behar dugula, eta hori, hain justu, ohituraren kontrako elementu bat da. Horregatik, jendea euskaraz egiten ohitzeko denbora guztian jende guztiarekin egin beharko genuke euskaraz. Baina horretarako denek ulertzea behar dugu. Hori ez bada, oso zaila da ohitura modu sozial batean eraikitzea.

Borroka horretan, erosotasunaren eta kontzientziaren arteko borroka horretan, sozialki normalean erosotasunak irabazten du, eta gutxi batzuek

PELLO JAUREGI ETXANIZ

EHU-KO IRAKASLEA ETA SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERREKO KIDEA

Aldahitz proiektuaren hirugarren emaitza

argitaratu du: «Uler-saioak», ulermena

foku bakarra duena. Izan ere, ulermena

komunikaziorako giltza dela dio, gauza

asko zabaldu ditzakeen giltza

Xabier Izaga Gonzalez

eusten diote kontzientziari. Jende askok etengabe egingo balu euskaraz, ohitura bihurtuko luke.

**Zure azken liburu honetan beste proposamen bat, beste aukera bat ekarri duzu: «Uler-
rizeketa babestua».**

Hori trantsizio moduko bat da, bi metodologiaren artekoa, “Uler-saioak” metodologiaren eta “Uler-izeketa” metodologiaren artekoa. Guk “Uler-izeketa” metodologia eremu errealean, eremu naturaletan, lantokian aplikatzen dugu. Jendea lanean ari da eta hor ez dago eskolarik, ez dago saio berezirik, lanean bertan egiten da. Baina “Uler-izeketa babestua” gela batean, eskola batean egiten da, eremu babestu batean.

Uler-saioak egin dituzten pertsonak oinarritzko ulermena badaukate, baina oraindik beharbada ez dira ausartzen eremu errealean, lanean, euskaraz ez dira ausartzen, oraindik gauza batzuk ulertzen ez dituztelako. Orduan, horien ulermena hobetzeko, “Uler-izeketa babestua” proposatzen dugu, gero lantokira salto egiteko. Baina horretarako giro babestu batean entrenamendua hartu behar dute.

**Liburuaren amaieran galde-
tegi bat jarri duzu. Autoe-
baluazio modura edo zure me-
todologia ebaluatzen?**

Hori gehien bat jarraipenerako tresna da. Baita ebaluazio subjektiboa nolabait ezagutzeko, ezta? Gero ikerketa bat antolatzen denean, beste tresna ezberdin batzuk behar dira, testak, benetan jendearen ulermena neurtzeko.

Modu objektiboagoan?

Hori da. Horretarako ikerketaren ikuspegitik testak behar di-

ra hasieran zer ulermen maila zeukaten jakiteko, hainbat ordu egin ondoren zenbateko ulermen maila eskuratu duten... Hori da hurrengo urteetan egin nahiko genukeena, esperientzia ugari, ongi neurtu eta hemendik bi edo hiru urtera emaitzak agertu. Baina zuk aipatu duzun galdetegia gehiago da jarraipenerako, autoebaluazioarako eta nolabait jendeak modu subjektiboan bere balorazioa emateko.

**Bistan da ordu asko eman di-
tuzuela tresna horiek sor-**

**tzen; hala ere, diozunez, au-
rretik daukazuen bidea egin-
dakoa baino luzeagoa da.**

Bai, bai. Hiru metodologia prestatu ditugu, hiru tresna aipatutako hiru komunikazio egoera horietarako, baina oraindik tresna horien balioa ikusi behar dugu. Esperientziazio fasea falta zaigu. Hiru tresna horiek modu integralean aplikatu behar dira, lan bererako tresnak dira, egin behar duzunaren arabera erabili behar da bata edo bestea. Hiru tresna horiek interesgarriak dira hizkuntza plangintzak

egiteko; adibidez, lantegi batean, erakunde batean, sindikatu batean. Lantegi batean euskaraz suspertzeko gogoia badago, hiru tresna horiek egokitu egin behar dira egoera diferenteetan, une diferenteetan, pertsona diferenteekin, baina denak norabide berean. Plangintza integralak egin beharko lirateke hiru tresna horiek batzuk besteekin nahastuz, egotzen araberak. Eta hori falta da.

**Aldahitz proiektuan badaude
euskaltegiak, euskara zerbi-
tzuak... instituzioek ere egi-**

«Tresna horiek guztiak nahi duenaren zerbitzuan jartzen ditugu; adibidez, lantegietan lan egiten duten aholkularitza taldeek eta erakundeek hemen dauzkate»



Jon URBE | FOKU

GAUR8



ireki gure leihoa



Raul BOGAJO | FOKU

IKUSMIRA

«BEGIETAN DAUKAT»

«Begietan daukat oraindik», esan zidan behin adineko emakume batek oroitzapen bat fresko-fresko zeukala adierazteko. Izan ere, begiak oroitzapenak gordetzeko kutxa egokiak dira. Badira begiak bus-titzen dituzten oroitzapenak eta badira begiak itxiarazten dituzten akorduak. Denak gordetzen dira begietan, jaso nahi direnak eta ahaztu nahi direnak.

Haurrak eskolara bueltatu dira eta irakasleak erotuta dabilta, musuak tapatzea eta eskuak garbitzea helburu pedagogiko bihurtuta halabeharrez. Ezinbesteko bihurtu da ikasleei begietara begiratzea eta lasai egon daitezela sinetsaraztea. Orain, besoek ezin dutenez, begiek besarkatu behar dute. Askotan esaten da konfiantza estuko bi pertsonen nahikoa dutela begietara begiratzea batek zer nahi duen edota besteak zer sentitzen duen jakiteko. Irakasle batek ikasle batekin begietako hari hori ehuntzea lortzen duenean, begiak itxi eta lasai lo egiteko moduan da. Amagoia Mujika Telleria

Konponbide azkarra

**Xabier Izaga
Gonzalez**

Gaur zutabe demagogikoaren txanda dela uste izango du batek baino gehiagok deskuiduan, okertuta, lerrook irakurtzen baditu. Neuk ere ez ote den zalantza egin dut. Moriako hondamenaz ari naiz.

Batzuei, askori, irakurriko balute, hala irudituko litzaieke, ordea, horrexegatik ez da demagogikoa, badakidalako horrelako idatziek ez dutela jendearen, herritarren, masen konfiantza erakartzen. Eta horrexegatik da demagogikoa diskurtso xenofoboa. Gogora datorkit Javier Marotok Gasteizen udal hauteskundeetan erabili zuena jendearen, he-

rritarren, masen konfiantza lortze alde-
ra, hain justu ere.

Arazo konplexua dira errefuxiatuak, arazo konplexua immigrazioa oro har, baina kausarik eta konponbiderik gabekoa balitz bezala, beren larrutan sufritzen dutenen alde egiten duenari demagogo esaten zaio maiz.

Moriako jendeak ezer gabe atera behar izan omen zuen kanpalekutik bizia salbatzeko. Erraza zuten, ezer ez zeukaten ez gero. Ezer gabe iritsi ziren eta ezer gabe zirauten han, infernuan, iritsi zirenean benetako infernua zela susmatzen ez zuten hartan. Zaporeak

proiektuak aurreikusita zuen hango egoera lehertu egingo zela, baina ez zen ezstandarik izan, sutea baizik. Oker zeuden Mugarik Gabeko Medikuek ere, kanpalekua erloju bonba bat zela esanda. Demagogoak denak, nonbait.

Europako erakundeek berehala erre-
akzionatu zuten, konponbide azkar bat aginduz. Konponbide azkarra, suteari, garren ondorioei, baina ez urteetan konponbide zain dagoen infernuari, duela hainbat urte konponbide azkarra behar zuenari.

Benetan uste dute hango egoeraren erruduna covid-19a izan dela? •

Medikuak eta medikuak

**Xabier Mikel
Errekondo**

Geure gurasoek izenari “don” kategoria ipintzen zioten aurretik, apaizei adina errespetu azalduz.

Garaiak aldatu dira, zorionez, baina nago covid-19ak zamatatu digun albo kaltea dela medikuei gorazarre orokor eta merkea egitea, birusaren aurkako borrokak lehen lerroan ipini dituelako. Apar gehiegi, behar dutena baliabideak eta laguntza dira, lehen lubakian ibili diren beste milaka herritarrek bezala.

Baina goazen harira, kontua betikoa da, langile guztiok ditugula betebeharrak baina medikuen egoera muturrekoa dela gure osasuna haien esku ge-

ratzen delako. Ospitaletan eta klinikatan dezente ibilia naiz, artatua izateko eta nire kideei laguntzeko, noski. Eta ezagutu ditut medikuak eta medikuak. Onak batzuk, txarrak asko.

Bikotea, alaba, semea eta lauron artean hogeit bat ebakuntza ditugu eginak, tartean hernia diskal bi, aurreko lotailu gurutzatuak bost, besoko Lau-drup bat, meniskoak eta kartilagoak askotan, ZIU Zainketa Intentsiboko Unitatean egonaldi bi eta abar. Hainbeste urte eta esperientziaren ondotik atrebituko nintzateke esatera asmatuko nukeela ona ala txarra den bere jarrreragatik eta hitz egiteko moduagatik soilik. Entzuteko prest ez dagoen me-

dikuarekin ez fidatu, eta arinkeri-
az edo harrokeriaz aritzen denarekin argi! Gehiegitxo dago halakorik, bai.

Denok ezagutuko genituen kasu larriak, baina Olatz Vazquezena benetan izugarria da osasun sistemaren profesionaltasunik eza nabaria delako, katean egindako axolagabekeria hutsak ez badi-ra! Egunotan sare sozialetan eman du bere kasuaren berri kazetariak (<https://cutt.ly/mfbLk32>).

Ez utzi zure osasuna edozein medikuren esku, eskatu erreferentziak eta saiatu bilatzen ahalik eta hobekien egokitzen zaizuna. Bakarra da-eta zure osasuna. Bakarra bizitza. Bizi bizitza kalitatez. •



> Albiste faltsuen irudi biralak



@VillegasPoljakE

Argazki errealak, albiste faltsuei sinesgarritasuna emateko, edo, zuzenean, errealtatea aldatzeko irudi manipulatuak gainezka egin dute urte hauetan sare sozialetan, nahiz eta *fake news* direlakoak ohiko he-



dabideetara ere iristen ziren. Asmo onekoren bat, hala nola torturaren aurreko hipokrisia salatzea, eta xede zinez beldurgarriak dituzten beste batzuk, hala nola iritzi publikoa gerra batean sartzearen alde jartzea.

Txiolari batek Euskal Herrian egindako torturen inguruan dagoen hipokrisia salatzeko asmo garbiarekin Unai Romanoren argazkiak Venezuelako oposizioko kide batek balira bezala jartzeak, edo beste batek izandako burutazio hutsak, txibia erraldoi bat hondartza batean kokatzeak, irudi biralak sortu dituzte, agertzen zen albistearen faltsutasuna edo zehaztasunik eza ezaugarri dutenak guztiak. Torturatua ez zen Venezuelako oposizioko kidea, euskal herritarra baizik, eta ikaragarritzko txipiroia balea baten lekuan zegoen egiazki.

Beste informazio eta irudi faltsu batzuek helburu mukurragoak izan dituzte. Kasu horietan, sare sozialetatik harago, faltsututako argazkiak eta albisteak ohiko hedabideetan argitaratu izan dira, paradoxi-koki *fake news* direlakoekin oso kritikoak direnetan; agian, gaizki pentsatuek esango luketen moduan, hein batean informazioa manipulatzeko beren monopolio tradizionala hautsi egin delako.



> Euskaraldirako motorrak berotzen

Euskaraldiaren edizio berri baten atarian, motorrak berotzeko emanaldi bi antolatu dituzte, hausnarketarako, Lanku Kultur Zerbitzuek eta Euskaltzaleen Topaguneak: “Txor txor umore bakarriketarako” eta “...Nahi dugu hitz eta jolas bertso saio tematikoak”. Donostian izan zen haien estreinaldia joan den asteazkenean.



Donostiakoaren ondoren, bakarrikzketen emanaldi ugari hitzorduak finkatuta dituzte dagoeneko: Etxarri Aranzten, hilaren 18an; Arrasaten, 25ean; Espartzan, urriaren 3an, besteak beste. Bertso saioen kasuan, berriz, oraingoz bi emanaldi daude lotuta Pasaian, azaroaren 22 eta 23rako.



> Ezohiko efektu fotovoltaiko bat

Europako Ikerketa Kontseiluak 1,4 milioi euroko laguntza onartu dio Julen Ibañez EHU-ko ikerlariari, hurrengo bost urteetan ezohiko efektu fotovoltaiko bati lotutako ikerketa proiektua garatzeko. “Photo-Now” egitasmoa da, eta Donostiako Materialen Fisikaren Zentroan garatuko da.

Donostian kokatutako zentroa Lakuako Gobernuaren bikaintasunezko ikerketa zen-



troa izateaz gain, EHUren eta Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenaren zentro mistoa da. Europako laguntza horrek ikerketa taldea sortzen lagunduko dio Ibañezi, hiru doktoratu osteko ikerlari eta bi tesi ikasleri lana emanez, baita potentzia handiko ordenagailua erosteko ere. Laguntzen deialdiak 3.200 eskari baino gehiago izan ditu, eta, EHUK azaldu duenez, %13 baino ez dituzte diruz lagundu.

> Zuntz optikoa Urdaibai Bird Centerren

Zuntz optikoa Urdaibai Bird Centerrena heldu da, eta horri esker zuzeneko emanaldien kalitatea hobetu ahal izango dute. Azaldu dutenez, gaur arte «itzalaldiak, blokeoak eta gainerako ezusteak» izan dira. Gaurtik aurrera, ordea, «posible izango da gure etxeetatik Urdaibaiko altxorak erakusten dituen leiho birtualera inongo oztoporik gabe sartzea».

«Gaur egun handia da Urdai-bai Bird Centerrentzat». Horrela jakinarazi du natura zentro-



ak ohar batean zuntz optikoa- ren etorrera, eta horrek bere jardunerako duen garrantzia nabarmendu du, milaka lagun konektatzen baitira zentroaren zuzeneko emanaldietara. Gogoratu dutenez, udaberria eta uda «benetako erokeria izan da paduraren zuzeneko emanaldietara batu zaizkigun bisitari birtualen kopurua kontuan hartuta». Aurrerantzean, zuntz optikoari esker, behar bezalako zuzenekoak eskaini ahal izango dituzte.



> Hiesaren Aurkako Batzordearekin, covid-19az solasean

Kattalingorri elkarteak LGTBI+ nafarrak biltzen ditu, eta Nafarroako Hiesaren Aurkako Batzordeari elkarrizketa egin dio, irailaren 4an Osasun Sexualaren Nazioarteko Eguna izan zelako. NAIZen irakurgai dagoen elkarrizketan, Hiesaren Aurkako Batzordeak koronabirusaren garaiko osasun sexualari buruzko gako batzuk eman ditu.



Diotenez, Osasun Sexualaren Nazioarteko Eguna 2010ean sortu zen, Sexu Osasunerako Mundu Elkartearen ekimenez, eta pertsona guztien sexu osasuna, ongizatea eta sexu eskubideak sustatzea du helburu. Aurtengo leloa, “Plazer sexuala covid-19aren krisi garaian” izan da, eta horretaz hitz egin dute elkarrizketan ere.



Maitena Usabiaga Sarasua
Sexologoa eta psikologoa

Zaurgarritasunean



Ez dira garai errazak, eza-
gutzen genuen egune-
rokoa aldatu zaigu eta
ziurgabetasuna da gure
bandera nagusia. Beti
izan da horrela, dakigun
gauza bakarra da ez dagoela ziurta-
sunik, baina esan genezake oraingo-
an bortizki jo gaituela sentazio ho-
rrek. Zaurgarri sentitzen gara, txiki
eta ahul. Badakigu egun batetik bes-
tera gauzak alda daitezkeela eta dena
ez dagoela gure esku.

Zaurgarri izatea ahul izatearen si-
nonimotzat jotzen duen sistema ho-
netan, zaila egiten zaigu gure alde
hori atera eta lasaitasunez bizitzea.
Esan genezake gure hezkuntza siste-
mak, baita osasun sistemak ere, gu
indartsuak eta seguruak izatea bila-
tzen duela. Ahultasunak gainditu, al-
de batera utzi eta norbait izatera
bultzatzen gaituzte. Ez egin negar, ez
esan txorakeriarik, indartsuak izan,
hobetu, lehiatu, ez gaixotu, segi, ja-
rraitu, ez gelditu. Eta hor goaz, ahal
dugun modura, askotan galduta.

**Ezaugarri honek, zaurgarri izateak,
badu bereizgarri sexuatu bat. Emakumeei lotuta egon den ezaugarria
izan da askotan, gu gara ahulenak,
sentiberenak, hauskorrenak.** Gizo-
nezkoak, ordea, indartsuak dira, go-
gorrak, sendoak eta salbatu egingo
gaituzte. Ez da kasualitatea, ezta? Da-
goeneko edonork ikus dezake des-
berdintasun hori, baina zer ari gara
egiten horrekin? Nola bilatzen dugu
denon ahotan dagoen berdintasun
hori? Onartzen al dugu zaurgarriak
garela? Besteen aurrean hauskor
azaltzen al gara?

Ezekkoa ateratzen zait. Guztiok in-
dartsuak garela erakutsi nahi dugu,
gure burua defenditzeko gai garela,
ez dugula inoren laguntzarik behar,

independenteak garela, autonomo-
ak. Egia da hori? Ezekkoa ateratzen
zait berriro. Besteen beharra dugu,
horrela da. Ez gara ezer bakarrik,
besteekin gara eta hori onartzea
ezinbestekoa da aurrerapausoak
emateko. Interdependenteak gara
eta hori ez da txarra (zer da ona eta
zer txarra?), nahiz eta hori esan di-
guten. Besteen lanaren beharra dau-
kagu, bestearen begirada bilatzen
dugu, maitasuna, goxotasuna, inti-
mitatea, konfiantza, gertutasuna... Ez
al da horrela?

**Zaurgarriak gara, eta bestearen au-
rrean horrela agertzea egin dezake-
gun ekintza ausartenetakoa irudi-
tzen zait.** Zergatik? Denok garelako
hauskorrak, beldurtuta gaudelako, ez
dugulako bakarrik sentitu nahi, ez
dugulako mina sentitu nahi, ez du-
gulako hil nahi. Baina hori onartzeko

ausardia izan behar dugu eta asko-
tan ez da erraza izaten halako inda-
rrak topatzea. Ezin dugu den-dena
kontrolpean izan, ezin dugu beti in-
dartsuak izan eta ez da ezer pasa-
tzen.

**Mingarria izan daiteke bestearen
aurrean horrela agertzea, beldurra
ematen digu bestearen erreakzio-
ak, mina egiteko arma perfektua
ematen ari gara.** Argi dago ez garela
horrela azalduko edonoren aurrean,
zainduko gaituen horrekin egiten
dugu, nahiz eta batzuetan ez asmatu
eta min hartu. Mina sentitzearen
beldurrarekin bizi gaitezke, hilko ga-
ren beldurrarekin bizi gaitezke, eta,
ondorioz, gauza asko galduko geni-
tuzke. Edo onartu dezakegu baietz,
zaurgarriak garela, beldurtuta gau-
dela eta ez dakigula zer eta nola
egin. Eta inork badaki? •



Zaurgarri izateak badu bereizgarri sexuatu bat, emakumeei lotuta egon dena askotan.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JUAN AYGUES, PEINADO ETA MAZO, «NORTE. SEMANARIO GRÁFICO DE ACTUALIDAD»

MARTZILLAN, PETROLIO BILA

1950ean prentsak zioenez, George Cramer enpresaburu iparramerikarrari iruditu zitzaion, Nafarroan barrena egindako bidaia batean, Erriberak eta Bardeak antz handia zutela Texasekin alderdi geologikoari dagokionez. Nafarroan petrolio aurkitzeko aukera ikusita, 1952tik 1953ra bitartean zundaketak egin ziren zenbait herritan, hala nola Lerinen, Faltzesen, Tuteran, Caparrosen eta Martzillan, lurra zulatu eta petrolio bilatzeko prospekzioak egiteko. Azkenik, Martzilla aukeratu zuten eta bertan jarri zuten 45 metroko altuera eta 1.300 tonako pisua zuen zulagailu bat, Ameriketako Estatu Batuetatik espresuki ekarria eta Bilboko portuan deskargatua. Bi enpresa arduratu ziren prospekzioaz: Valdebro eta Delta Drilling Co. Tayler amerikarra. 1953ko udaberrian hasi ziren prospekzioak egiten eta ia egunero Estatu osoko prentsak metro zulatuaren lorpenen berri ematen zuten, Texastik etorri eta Tuteran ostatu hartu zuten langileei elkarrizketak eginez. Era berean, prentsak nekazarien kezken berri ematen zuten, petrolio agertuz gero, beren lurrak desjabetuko lituzketelako. Goiburu batean hau jarri zuten: “Gaur erremolatxaz estalitako erregu-lurrak, dorre metalikoko baso izan daitezke bihar”. No-do albistegi frankistak ere eman zuten gertaeraren berri. Hilabete batzuk iraun zituzten prospekzioek eta ez zuten fruiturik eman. Uneren batean, Los Arcos herrira joateko aukera aztertu zuten, han zorte handiagoa izango ote zuten, baina azkenean aukera hori baztertu egin zen. “Norte. Semanario gráfico de actualidad” Donostiako aldizkariak Martzillako prospekzioei buruzko erreportaje bat argitaratu zuen, Peinado eta Mazo Tuterako argazkilariek egindako dorre zulatzailearen argazki batekin eta goiburu honekin: “¡Ojo! Que no es París ni New York. ¡Es Marcilla!”. Halaber, barnealdean Valentzian jaio eta Donostian bizi zen Juan Aygues argazkilaria irudi batzuk ere bazituen erreportajeak. Horietan, langile batzuk ikus daitezke zulagailuan eta “Texas” izena jarri zioten Martzillako taberna baten kanpoaldean. Beharbada, prospekzio horien erakunde onuragarrienetako bat Nafarroako Eliza izan zen, prospekzioez arduratzen ziren konpainiek 100.000 pezetako dohaintza eman baitzioten.

ireki gure leihoa



GAUR8

